

...eta!
Kitto!

2017-XI-24

1036 zkia.



Sanandresetako eskaparatea

eslaban

eslaban.com
T. 943 820 407

Igogailuak **Fatxadak** Teilatu berritzeak eta aldaketak
Erreformak Proiektuak **Konponketa bereziak**
Lantokientzako lan bereziak **Eraikinen mantentzea**

BELAUSTEGI BASERRIA

JATETXEA

www.belaustegi.com / Tel. 943 74 31 02

ELGOIBARKo
San Miguel
gainean

*Jaietan
ondo
pasatu...
eta
mahaian
gozatu...*



NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA

ZELETA BARAZKIAK



*Ekoizpen prozesuan
energia berriztagarriak
erabiltzen ditugu*



- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa
- Ortuik mahaira: Bertako produktuetan erantzunik gertukoena

Ekoizpenaren %100 hazte-zikloa zainduz eta tratamendu kimikoen erabilera saihestuz lortzen dugu

*Ondo pasatu
Sanandresetan!*

ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa / ELGOIBAR • Tfnoa. 609 35 76 19 • www.zeletabaserria.com



ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpuru.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Maialen Belaustegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:
Maialen Belaustegi

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.150 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto! "k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

eskutitzak

– Kartzelako itxarongelatik, eskerrak –

Kaixo.

Nerekin batera kondenatu zuten Amaia Agirre-
gabiria kartzelan dago eta neu ere bertan izango
naiz aste gutxi barru.

Amaiak bezala, nerekin daramat hainbat pertso-
nak eta taldek agertu didazuen elkartasuna. Lerro
hauen bitartez, bihotzez, eskerrak eman nahi dizki-
zuet bide batetik edo bestetik elkartasuna adierazi
eta animoak eman dizkidazuen guztioi: hirugarren

graduaren aldeko eskaera sinatu duzenoi, sina-
durak bildu dituzuen tabernariei, Txaltxazelaiko ar-
gazkian azaltzen zaretenei, SMSak bidali edo kale-
an gelditu nauzuen guztioi, Miguel de los Toyos al-
kateari eta gure aldeko giza-adierazpena sinatu du-
zuen udal talde politikoei... eta, bereziki, hori anto-
latzen jardun duzuen lagunei.

Mila esker. Ez dut inoiz ahaztuko.

Iker Rokandio

– Udaltzain guztiek ez dituzte suzko armak eskatzen –

Eibarko udalaren CCOO sindikatu-sailak esan
nahi du agente guztiek ez dutela partekatzen suzko
armak udaltzainei emateko eskaera. Plantillaren bar-
ruan suzko armen erabilera beharrezkotzat hartzen
ez dutenak ere badaude. Bere eguneroko lanak egi-
teko, trafikoaren zainketa, udal-ordenantzak bete-
etzea, larrialdietarako arreta... gertuko polizia bate-
nak, ez dituzte suzko armak beharrezkoak ikusten.

Ez dugu uste suzko armak erabiltzeko segurta-

sun handiagoa dakarrenik ez agenteentzat ez her-
ritarrentzat. Polizia britaniarrarena bezalako adibi-
deak baditugu: 186 urte daramatzate armarik gabe
patrullatzen Eibar baino askoz gatazkatsuagoak di-
ren herietan.

Horregatik eskatzen dugu plantila osoaren iritzia
kontuan hartzeko eta ez bakarrik suzko armen es-
kaera egin duten bi sindikaturena.

Eibarko udalaren CCOO

– STOP hipokresiarri –

Bai, egia da, Eibarrera beti etorri izan da beste
herrietako jendea lanera, lana zegoen eta. Baina
gure herrian azken urteetan egoera asko aldatu da,
ia-ia lanik egon ez arren, jendea gero eta gehiago
etortzen ari da, etorri eta gelditu. Nire buruari gal-
detzen diot: ez badago lanik, zer gertatzen ari da
gure herrian?

Eta gure seme-alabak, non daude? Zein eskole-
tara bidaltzen ditugu, Eibarko anitz eta ireki honen
partaide senti daitezen? Urkizu aldekoak Urkizuko
ikastetxera? Urkikoak Arrateko Andra Mari eskola-
ra? Amañakoak Amañako ikastetxera? Ez, mesedez,
eskola hauek "kanpotarrez" beteta daude, "gettho-

ak" bihurtu dira guri esker, baina gu ez, gu ez gara ez
xenofoboak, ez arrazistak ezta klasistak ere, gu oso
jatorrak gara, eta euskaldunak, eta eibartarrak.

Ahoa hitz potoloekin betetzen zaigu: anitzasuna,
elkarbizitza, errespetua, inklusibitatea,... Bai,
hauen alde gaude, nola ez! Herri mailan antolatzen
diren bazkari eta bestelako ihardueretan parte har-
tzen dugu, argazkietan agertzen gara baina, fabo-
rez, nola nahastuko dira gure seme-alabak ohitura,
kultura eta sinesmen ezberdinak dituzten haur eta
familiekin?

Hipokresia hutsa.

Maria Luisa Alcalde

– Besarkada haundi bat "La Novenakoei" –

Eskerrak eman nahi dizkiet "La Novenako" tal-
dekide guztiei Ernesto Barrutia zuzendariarekin ba-
tera egiten diharduten lan guztiarengatik. Euretako
batzuei pertsonalki zoriontzen hasi nintzen, baina
guztiengana heltzea zaila egingo zitzaidala kontu-
ratu nintzen, guztien telefono zenbakiak ere ez di-
tut-eta. Egiten dutena lan-dibertsio garrantzitsutzat

jotzen dut, eurentzat balio duen moduan Coliseoa
bete genuen besteontzako ere onuragarri izan de-
na. Eskerrik asko guztioi eta jaso itzazue gure ani-
moak bide horretatik jarraitzeko; konturatuko zine-
ten asko garela uste berekoak, gure txaloeak baiez-
tatu zutenez.

Arrate

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MAHASPASA. - Sikatutako mahats garaua. "Mahaspasak ez jataz komeni: gozuegixak dira
nirezako". Tximurra adierazteko. "Agura mahaspasia topau neban".

MAHATS. - Mahuka, txollua. "Hau dok mahatsa! Hau dok gangia!".

Hurrengo alea abenduaren 4an

Datorren asteko barixakuan ez da alerik izango,
bezperan San Andres eguna delako. Hori dela-eta,
jaietako irudiak eta bestelako informazioa jasoko
duen alea abenduaren 4an, astelehenean, kaleratuko
dugu, "zubi-akuedukto" deitutakoa duen aste hasieran.

Aurten Eibarren izango da Beldur Barik Topaketia

Abenduaren 2xan egingo dan Beldur Barik Topaketia gure herrixan izango da oinguan eta, hori dala eta, herri ezberdiñetatik etorriko diran gazte mordua alkartuko dira Untzagan, 16:30xak aldera. Batutako guztieri ongi etorrixa emon eta jarraixan Portalera juango dira, han eskinduko dituen taillarretan parte hartzeko. Taillarrak 12 eta 26 urte bitarteko neskamutilleri zuzendutakuak izango dira, musutruk eskinduko dittue eta parte hartzeko ez da biharrezkua aurretik izena emotia. Ondoren, trikitilarixekin batera Untzagara bueltatuko dira, zeozer jan eta atzera be Coliseoraiño kalejiran juateko. Izan be han izango da sari banaketia eta orduan jakingo da aurtengo irabazliak zeintzuk diran.



Abenduaren 9xan Parisen egingo dan mobilizaziñorako deia

Bakearen Artisauak, Bagoaz, Etxerat eta Sarerekin batera "Denak Pariserat" mobilizaziñua deittu dabe Parisen abenduaren 9rako, "euskal presueri aplikatzen jakuezen salbuespenekin amaitzeko lehen pauso modura". Ekitaldixa ezagutzera emoteko asmuarekin, eguaztenian presentaziñua egin eben Arrate Kultur Elkartean eta, bestiak beste, Bagoazeko kidia dan Emilie Martinen berbak entzuteko aukeria egon zan, proiektu eben grabaziñuari esker. Ekitaldixan esandakuaren arabera, "abenduaren 9xan, ilusiñoz beteta, estadu frantsesa mugiaraziko dogu, euskal presuen kontra garatu daben kartzela politika kanbixatzera derrigortuko dogu, dispersiñuarekin betirako amaituta. Holan, estadu espiñola bere estrategixa ankerrekin bakarrik lagatziatz gain, gaur egungo testuingurua goittik behera aldatuko da. Zatozie gurekin batera Pariserat, Europa osuari aho batez aski dela esatera!". Horrekin batera, Eibarko Sareko kidiak hara juan nahi dabenendako autobusa antolatzen ari dirala gogorarazi nahi detse jendiari. Izena emoteko zerrendak Buenos Aires eta Beleko tabernetan dagoz eta abenduaren 3an pasauko dira jasotzera.



Tomas Meabe gogoratzeko plaka ipiñi dabe

Aurreko barixakuan omendu eben Gazte Sozialistak taldia sortu eban Tomas Meabe, Euskadiko Gazte Sozialistak eta Eibarko PSE-EE alderdixak antolatutako ekitaldixan. Eibarko zein kanpotik etorritako sozialistak Untzagako "Casa del Pueblo" azpiko arkipietan Eibarren bizi izan zen Meabe gogoratzeko plakia ipiñi eben. Bestalde, ekitaldixaren aurretik, goizian emondako prentsaurrekuan azaldu ebenez, asanbladak Jon Iraola ziñegotzixa aukeratu barri dau Eibarko Sozialisten idazkari kargurako. Urriko kongresuan Eneko Andueza Gipuzkoako sozialisten idazkari izendatziak hainbat aldaketa eragin dittu alderdixaren zuzendaritza taldian: idazkari-ordea Miren Gallastegi izango da eta Ana Telleria ziñegotzixa be zuzendaritzakide izango da aurrerantzian.

**BOLINTXO
OKINTEGIA
GOZOTEGIA**

Eguneroko
ogia

☎ 943 20 40 66 (Errebal)

☎ 943 20 36 06 (Legarre)



publiresa@publiresa.com

Armagin, 3-5 beheak

merchandising

serigrafia

lanerako erropa

943 701 497 / 615 799 419



Merkatarixak "10 bitxiak" sarixa emon detse Otegi harategixari

Gipuzkoako hamar merkataritza enpresa nabarmenenak saritu dittue Gipuzkoako Bazkondeak banatzen dabene "10 bitxiak" errekonozimendurekin eta Debabarrena eskualdeko merkatarixak Eibarko Otegi harategixa aukeratu dabe sarixa jasotzeko. lazkuaren bidetik, aurtene be sarixa Gipuzkoako merkataritzako sektore guztietara zabaldu da eta, Urkizuko harategixarekin batera, eskualde bakoitzeko dendari banak jaso eban sarixa.

Aho-osasunerako adituak bat egin eben Mendaron egindako jardunaldixan

Aurreko barixakuan Mendaroko ospitalian egin zan IV. Aho-hortzen Osasunaren Nafiziorteko Jardunaldixaren harira arlo horretako hainbat aditu alkartu ziran, bakoitzak berak menperatzen dabene kontuene inguruan berba egitteko. Bestiak beste Anne O'Connell, Iñaki Lekuna Goya, José López López, Javier Montero Martín eta Marco Carrozzo sendagilliak hartu eben parte. Aurreko ediziñuetan bezala, oinguan be antolatzaillia Debabarreneneko ESIIn dentistia dan Maitena Urberuagak antolatu dittu jardunaldixak.



autuan



IKASTARUA EIBAR COWORKING-EN

Eibarko Txikito kalian martxan ipiñi barri daben Eibar Coworking-ek hainbat tailar eta ikastaro antolatu dittu: lehelengua ("Zure enpresa martxan jarri") datorren astian, astelehen eta martitzenian izango da (15:00-18:00); abenduaren 14an, barriz, 10:30xetan hasiko da "Autonomuen lege barrixa" jardunaldixa; urtarrillaren 18xan "Datu pertsonalak babesteko lege berria" jardunaldixa egingo da (10:30); eta urtarrillaren 29 eta 30ian atzera be eskinduko dabe "Zure enpresa martxan jarri" ikastarua. Informaziñua: eibarcoworking@gmail.com helbidera idatzi edo 688 734 292 telefonora deittu leike.

EIBARKO KANTUZALIEN KANTU-KALEJIRA

Eibarko Kantuzaleak abesbatzak kantu-kalejira egingo dau abenduaren 1ian. Arratsaldeko 19:00etan Untzagan alkartu eta, jarraixan, kalerik kale kantuan ibilliko dira.

Funeraria-Ehortzetxe Mugica

EIBAR

Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR

Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea

GRUPO **funeuskadi**

METALEZKO ERAIKUNTZAK ETA ALUMINIOZKO ETA PVC-KO AROZTEGIA



Aluminio, PVC eta aluminio-egurrezko leihoen fabrikazioa. Lan mota guztiak burdin eta altzairu herdoilgaitzetan.

TAILERRA: Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoa: 943 121 367 Faxa: 943 120 150

ERAKUSKETA: Urkizu, 26 - behea
Tfnoa. eta Faxa: 943 127 401

Info@ulmar.net - www.ulmar.net

*Beti
Berria
Bezala*

Amaia eta Ikerren alde San Andres egunian be

Ezari detsen kartzela-zigorra dala eta, Iker Rokandioaren lagunak "jasotzen ari dan babesa" eskertu nahi dabe eta, horrekin batera, alkartasuna adierazteko siñadurak biltzen segiduko dabe la azaldu nahi detse jendiari. Horren harira, ekitaldixa antolatu dabe San Andres egunerako: 12:00xetatik aurrera Untzaga plazan informaziño mahaixa jarriko dabe eta siñatzeko aukeria be eukiko dau jendiak. Gaiñera, Iker eta Amaia alkartasuna adierazteko argazkixa (personala, taldekakua, kuadrillakua...) eteratzeko txoko bat be egongo dala aurreratu dabe eta eibartar guztiak animatu nahi dittue "San Andres egunian tartetxo bat hartu eta Iker eta Amaia babesa emoteko gure mahaira gerturatzer".



Bangladeshko janarixen taillar arrakastatsua

Bangladeshko sukaldaritza bertatik bertara ezagutzeko aukera aparta euki eben martitzenian ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik Portaleko sukaldian eskindu zan "Munduko janarixen" taillarren lehen saiuan. 15 bat lagun alkartu ziran eta Bangladeshen jaixotakua



dan Safiak arroza zelan preparatzen daben (biryani era) erakutsi zetsen. Taillarrian parte hartu ebanak pozarren jua ziran etxera, sukaldatutako arrozarekin.



Astelehenaz geroztik kartzelan dagan Amaia eta egun gitxi barru kartzelara sartuko dan Ikerri jendek zein erakunde ugarik dihardu babesa emoten. Bestiak beste, aurreko asteko Bozera-maillien Batzordian Amaia



Hondarribian kariño-ginkana egin zeben asteburuan.

Agirregabiria Pasaiaiko alkate ohiaren eta udal horretako funtzionariño ohi dan Iker Rokandio eibartarraren auzixaren inguruan idatzitako alkartasun testua aztertu eta gero, Eibarko Udaleko Bozera-maillien Batzordiak, udal talde guztien (Eibarko EAJ-PNV taldiarena ez eze) babesarekin, bat egin eban alkartasun adierazpenarekin, aittatutako lagun bixeri ezari detsen kartzela-zigorra dala eta.

Berakatz zoparik onena Emi Aiaitui eta Tomas Perniarena

Eibarko Sarek antolatuta, zapatuan jokatu zan Untzagan Eibarko II. Berakatz Zopa Lehiaketia eta, parte hartu eben 23 bikotien zopa guztiak probatzen ibilli eta gero, epaimahaixak lehen sarixa Emi Aiaitui eta Tomas Perniari emotia erabagi eban. Horrez gain, bigarren (Iñigo eta Ainize) eta hirugarren sarixa (Ian eta Gorka) be banatu zittuen.

Untzagako jubilauiak agenda betiarekin segitzen dabe

Aurreko barixakuan moda desfilia egin eta gero, zapatuan beste hitzordu bat euki eben Untzaga jubilaui etxeuak, zen-truko abesbatzak El Corte Ingleseko Gabonetako argixak ixotzeko ekitaldixan kantau eban eta. Edozelan be, nabari da jubilauiak sasoi betian daguazela, asteburu honetarako agenda be ekitaldiz beteta izango dabe eta: gaur 19:15etan Angel de la Torreren margo erakusketia zabalduko dabe. Erakusketia abenduaren 10era arte egongo da zabalik, astegunetan 19:15etatik 21:15etara eta zapatu, domeka eta jaiegunetan, barriz, 10:00etatik 12:00xetara.



Aurreko barixakuko desfiliaen irudixa. Maialen Belaustegi

1950ian jaixotakuen jaixa

Aurreko zapatuan alkartu ziran erretratuan ikusten dittuzuenak alkarrekin bazkaltzeko. Aurretik, baiña, egun berezi horretarako zapixak banatu zittuen eta, horrek lepuan ipiñitta, talde osuaren argazkixa etara eben Untzagan.

Bezero Guztiendako San Andres ZORiontsuak!

ARKUPE Isasi, 2

 TEL. 943 70 26 91

Antzaga, 11

Laurel & Hardy Pub
JABE BERRIAREKIN



Aguiñaspi
 URKIZU, 22 943 128086

lanegunetan 06:00etatik asteburuetan 08:00etatik
 Eguneko menua, Menu bereziak, Gosariak, Plater konbinatuak, Razioak, Bokatak, Hanbursesak, Pintxoak...



GORA **GURIDI**
 SAN ANDRES!



ONGI ETORRI
 "Jan eta edan"

T. Etxebarria, 21
 Tel. 943 20 70 07


PINTXOAK eta **KAFEA**

Zubi-Gain URKIZUKO DORREETAN



Urkizu, 11-behea Tfnoa. 943-254060
Ogitarteko, plater konbinatu, tapa, entsalada, pintxo bereziak...
ETXERAKO ZERBITZU BERRIA:
bapobapo.com

AMETSA
 Toribio Etxebarrian



Giro ezinhobea, musika bikaina...
SAN ANDRES AHAZTEZINAK!!!

Bakailaoaren Kofradiak XXIV. Kapituluak egingo du domekan, hilaren 26an, eta Cesar Huerta, Nekane Muguruza eta Mireya Etxaluze izendatuko ditu Ohorezko Kofrade. Ingalaterran bizi da Etxaluze, bertan ari delako lanean astrofisikari eibartarra, eta bisita azkarra egingo dio bere jaioterriari asteburu honetan. Han eta hemen ibili da lanean eta zerura begira bete du txikitako ametsa. Orain, gogo handiz begiratzen dio grabitazio-uhinen detekzioak astrofisikari ireki dion etorkizunari.



MIREYA ETXALUZE

(astrofisikaria):

“Zientzia funtsezkoa da gure gizartearen garapen teknologikorako”

– *Izarrei begira hazi zinen? Beti nahi izan duzu astrofisikaria izan?*

Beti. Txikitik espazioarekin zerikusia zuten gauzek liluratzeko ninduten eta oso argi neukan astrofisika ikasi nahi nuela.

– *Eibar ez da, bada, izarrak ikusteko tokirik aproposena. Zu zeu kanpora joan behar izan zinen ikastera. Nolako esperientzia bizi izan zenuen?*

21 urterekin Tenerifeko La Lagunara joan nintzen astrofisika ikastera. Ordura arte, 3 urtetik 18 urtera, Aldatzen ikasi nuen eta gero Leioara joan nintzen fisika ikastera. Han ere klaseko koadrila neukan. Norberaren konfort-gunetik irten eta irailean Kanariar Uharteetara iristea, ezer eta inor

ezagutu gabe, handia izan zen. Lehen eguna gogoratzen dut, etxetik 2.000 km-ra. Estutasuna sentitu nuen, baina lehen egunean bakarrik sentitu nuen hori. Bigarren egunean esnatu eta bertan zaude, eta ikasten hasten zara orduan. Zure bizitza egiten, lagunak aukeratzen eta bizitzari aurre egiten ikasten duzu. Oso pertsona independentea egin nintzen han. Niretzat, Kanarietan egin nituen urteak izan ziren onenak.

– *Hemendik kanpo garatu duzu zure ibilbide profesionala. Non? Zein bide jarraitu duzu?*

Karrerako azken urtean Oxfordeko Rutherford Appleton Laboratoryra joan nin-

tzen Leonardo beka batekin. Orain ez dakit existitzen diren, baina atzerriko enpreetan sei hilabete lan egiteko beka ziren. Harrezkero, bila ibili gabe etorri zait guztia. Rutherford Appleton Laboratoryn geratu nintzen doktoretza egiten, eta izarrarteko ingurunean hauts- eta molekula-partikulen osaketaren gainean ikasi nuen. AKARI Japoniako Espazio Agentziaren (JAXA) espazio-teleskopioa zenaren datuen kalibrazioan ere egin nuen lan eta, ondorioz, hainbat alditan Japoniara bidaiatu behar izan nuen eta Tokyon bizi izan nintzen hiru hilabetez. Hura bai izan zela esperientzia itzela! Gero, tesiaren defentsa egitear nintzela, Harvard-Smithsonian as-

www.kolorlan.com

667 54 89 16

KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L

**Catalana
Occidente
Seguros**

ERANTZUKIZUN ZIBILA / AUTOAK
BIZITZA ETA JUBILAZIOA / OSASUN
ASEGURUA / ISTRIPU BANAKAKO ETA
KOLEKTIBOAK / ARRISKU ANITZAK



EMILIO DE LOS TOYOS
Erreg. zkia. C046815351532K

Eibarko Txikito, 8
943 200 908 / 610 422 179

emilio.toyos@agentes.catalanaoccidente.com

trofisika zentroko irakasle batek deitu zidan. Nik egiten nituen antzeko kontuak egiten ari zirela esan zidan, eta nire doktoetzari buruzko hitzaldi bat eman eta astebete eurekin lan egiteko gonbidatu ninduten. Aste hura amaitzean, doktoratu osteko kontratua eskaini zidaten. Urtebete egon nintzen han eta Madrilgo CSIC-ra joan nintzen gero. CSIC-n lau urte inguru egon nintzen Astrofisika Molekularraren inguruan ikertzen zuen talde batean; lehenik, Astrobiologia Zentroan (INTA-CSIC) eta, gero, Madrilgo Materialen Zientzia Institutuan (CSIC). 2015ean Rutherford Appleton Laboratoryra bueltatu nintzen Lurraren behaketa egiten duten Europako Espazio Agentziaren sateliteen kalibratzean lan egitera Koperniko programaren barruan. Laborategian kalibratzen genituen sateliteen instrumentuak eta, gero, sateliteak orbitan daudenean bidalitako datuak kalibratu eta egiaztatzen genituen. Oraindik ere astrofisikaren inguruan ikertzen dut, baina gutxiago.

– JAXA, Harvard... zure curriculumean agertzen diren izenak handiak dira. Nola heldu daiteke horra?

Ba ez dakit, uste dut aurkeztu ahal zaizkizun aukerei irekita egon behar duzula eta ez dituzula hauek pasatzen utzi behar. Nik ez nuen JAXA edo Harvardera joatea bilatu, baina nire bidean gurutzatu ziren. Norberari gustatzen zaiona egitea da garrantzitsua. Gustatzen zaizuna egiten baduzu, oso ondo egingo duzu, ziur.

– Zaila da Euskal Herrian edo Espainian astrofisika arloan lan egitea?



Oso zaila da lan egitea, eta astrofisikan ere. Azken urteotan jaitsi egin da doktoertza eta doktoratu osteko beken kopurua. Murriztu egin da ikerkuntza proiektuen inbertsioa eta Espainiako erakunde publikoetan ikerkuntzan jarduteko tokia lortzea ia ezinezkoa da.

– Grabitazio-uhinen detekzioaren berri eman zen orain dela hilabete eta erdi. Zer ekarri du aurkikuntza honek astrofisikari?

Asko! Azken mendeko aurkikuntza garrantzitsua dela aipatzen da. Zulo beltzen edota neutroi izarren talkek eragindako gertakari biolentoez sortzen dituzte grabitazio-uhinak. Grabitazio-uhinek zulo beltzak entenditzeko, izarren bizitza-zikloa ezagutzeko eta unibertsuaren jatorria ulertzeko balio izatea espero da.

– Zure espezialitatean edo lan egiten duzun eremuan ere eragina izango du aurkikuntza honek?

Einsteinek orain dela ehun urte aurreikusi zituen grabitazio-uhinak, baina orain daukagu uhin hauek detektatzeko behar den teknologia zehatza. LIGO interferometroa erabili da aurkikuntza hau egiteko, eta tresna honek bi ispiluren arteko distantzia oso modu zehatzean neurtzen du laser baten bitartez. Rutherford Appleton Laboratoryk diseinatu, garatu eta ekoiztu zituen grabitazio-uhinen igarotzeak eragiten dituen efektu ahulak. Baita lurraren dardara eta mugimendu sismikoak bereiztu ahal izateko egonkortasuna eskaintzen dituzten suspentsioak. Horregatik, guretzat oso garrantzitsua izan da fisikako Nobel saria LIGO Proiektuari eman izana, Rutherford Appleton Laboratoryk bere harri-koskorra jarri duelako hor.

– Ingalaterran bizi zara eta bisita azkarra egingo diozu zure herriari Bakailoaren Kofradiaren eskutik omenaldia jasotzeko. Zer esan nahi du zuretzat?

Kanpoan bizi izanik ere, nirekin akordatzea ohore handia da niretzat.

– Eskaintzen duenarekin bat datorren tratua jasotzen du zientziak?

Espainian behintzat ez. Zientzia funtsezkoa da gure gizartearen garapen teknologikorako. Hala ere, Europar Batasunean ikerketa eta garapenean (I+G) krisia iritsi aurretik baino gehiago inbertitzen den bitartean, Espainian maldan behera doa I+G inbertsioa. Espainiako zientzia ez da abian jartzen eta atzean geratzen ari da berrikuntzaren arloan.

Bidebarrieta, 5 Tel. 943 201 547

CAPI
www.capiestetica.es

**IA BETIRAKO
MANIKURA
ETA PEDIKURA**

**BETILE
LUZAPENAK
/ LIFTING**

**LASER DEPILAZIO
PROMOZIOAK**
IZTERRONDOA +
BESAPEAK = 50€
ZONA BAKOITZA 30€

M a s a j e a k

943 20 17 33
650 71 03 36
629 48 15 92

Eibarbus
Betidanik, esku onetan!

- Bertoko eta nazioarteko **BIDAIAK**
- Enpresa eta eskola **GARRAIOAK**
- TXANGOAK**

Isasi 20 - behea
eibarbus@eibarbus.com
www.eibarbus.com

Ondo lotu abarkak Sanandresak indartsu datoz-eta. Gaur hasi eta hilaren 30era arte hainbat eta hainbat ekintza egingo dira gure herrian, baina aurretik ere joan da giroa berotzen. Aurten ere, nola ez, azoka nabarmenduko da, urtero bezala, baserriko giroa ekarriko dute herriko kaleetara Euskal Herri osotik etorritako ekoizleek. Fruituak, ortuko produktuak, esneki eta gainontzeko jakiez gain, dantzak, musikak, bakailaoak eta txistorrak ere emango dute zeresana datozen egunotan.



Festarako prest? Badator San Andres!

Janariak aparteko protagonismoa dauka euskal gizartean eta jaki gozoez sabela betetzea ezinbestekoa da edonolako ospakizunetan. Azokaren inguruan ospatzen den jaia izanda, gastronomiak toki handia betetzen du Sanandresetako egitarauan eta denetarikoa jakiak probatzeko hainbat aukera eskaintzen ditu.

Sanandresei oso lotuta dagoen produktua da bakailaoa. **Bakailauaren Kofradixiak** urteko egun hauetan ospatzen ditu bere ekintza nagusiak eta aurtengoa 25. aldia izango da. Data bereziaren aurrean, I. **'Bacalaos Alkorta'** pintxo lehiaketa antolatu da aurten eta Durangoko 'Kobika' jatetxea izan zen joan den zapatuan egindako txapelketan 'Codwich' proposamenarekin gai-

lendu zena. Euskal Herri mailako txapeldu-na (Hondarribiko Gran Sol), Arabakoa (Borda Berri), Gipuzkoakoa (Zazpi), Bizkaikoa (Kobika), Nafarrokoa (Iruñeko Baserri Berri) eta Elgoibar (San Roke), Ermua (Frankfurt) eta Eibarkoa (Kultu) lehiatu ziren, eta bakoitzak bere proposamena zuzenean prestatu zuen udaletxeko patioan.

"Bakailaoa koilara edo tenedorearekin jan ahal izateko prestatzen da normalean, baina eskuarekin jateko zerbait egin nahi izan dut", adierazi zuen Iñigo Kortabitarte sukaldari irabazleak. Ogirik gabeko sandwicha prestatu zuen, bakailaoak ordezkatzeko zuelako ogia. Txangurroarekin estali zuen eta bakailaoaren azal frijituari ogiaren azalaren itxura eman zion.

Bakailaoaren egun handia, hala ere, domeka honetan iritsiko da, **hilaren 26an. Bakailauaren Kofradixaren XXIV. Batzar Nagusia** egingo da eta goizeko 10:00etan ekingo diote egitarauari. Hasteko, ongi-eto-



Inguruko sukaldari bikainak bildu zituen "Bacalaos Alkorta" pintxo lehiaketaren lehen edizioak.



- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

MATSARIA, 34 behea - A
info@pinturasarrate.com
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89



**EIBARKO KLUB
DEPORTIBOAK**
**ATEZAIN-TABERNARI
EUSKALDUNA BEHAR DU
astelehenetik ostiralera**

Interesatuak info@deporeibar.com helbidera idatzi

rria emango zaie kofrade guztiei eta hamarretakoa egingo dute Ipur Sagardotegian. Usartza Txistulari Taldearen laguntzarekin kalejiran irtengo dira 11:30ean Portaleraino eta 12:00etan hasiko da han Kapituluak. Aurten **Nekane Muguruza** judoka, **Cesar Huerta** ATS-a eta ale hone-tan elkarrizketatu dugun **Mireya Etxaluze** astrofisikaria izendatuko dituzte ohorezko kofrade eta, ondoren, Goruntz Abesbatzak emanaldia eskainiko du ekitaldiari amaiera emateko. Portaetik Ipur Sagardotegira bueltatuko dira lagun eta kofrade artean bazkaltzeko.

Bakailoaren aurretik, pintxoak eta txistorra

Bakailoa ez bazaizu gustatzen, lasai, aukera gastronomiko zabala izango duzu eskura Sanandresetan. Aste honetako martitzenetik eguenera Eibarko tabernarien arteko **San Andres Saria XVI. Pintxo Lehiaketa** egin da Arrate Kultur Elkarteak antolatuta, eta 26 tabernekin pintxo bereziak prestatu dituzte bezeroak harritu eta gustu zapoetsuak eskaintzeko. Gaur emango dira jakitera irabazleen izenak.

Pintxoen ostean, txistorra. **Bihar** egingo da Eibarko Txirrindulari Elkarteak antolatzen duen **XV. Txistorraren Eguna** eta txirrinduzaleek hainbat ekintza antolatu dituzte goizetik gauera. Txapligu eta txotxarekin emango zaio hasiera egunari **Fernando Barrotia** eta Eibarko Udaltzaingoaren eskutik 12:15ean Untzagan. Goseari eta egarriari aurre egiteko, 12:30ean hasiko da txis-

torra eta edari salmenta. Elgoibarko dultzaineroek plazako karpa eta inguruak girotuko dituzte 12:30etik 14:30era, eta antolatzaileek atsedena eta jatekoa hartzeko aukera izango dute Kamarroak elkarte gastronomikoan 15:00etan. Indarrak berri ostean, txistorra eta edarien salmenta hasiko da berriz 18:30etik 21:00ak arte, *“musika eta giro atseginean”*, antolatzaileen berbetan. Egunari amaiera emateko, azkenik, 4.000 euro banatuko dira saritan 21:30etan hasiko den zozketan.

Musika eibartarra eta dantza

Jandakoa eta edandakoa arintzeko aukera ere egongo da Sanandresetan. Dantzak

eta musikak herriko kaleak girotuko dituzte egun hauetan eta herrian bertan proposamenak izango dira nagusi. Gaurko eguna ikuskizunez beterik dator, beraz, badago euskal kulturaz gozatzeko aukera ederra.

Goi-mailako **bertsolariak** batuko dira **gaur 19:00etan Portalean** egingo den San Andres Bertso Jaialdian. Andoni Egaña, Alaia Martin, Miren Amuriza eta Sustrai Collina bertsoan jardungo dute Jon Mikel Mujikaren gidaritzapean, gaur egun inon ikusi daitekeen bertso-kartel onenetariko osatuz. Jaialdi handiarekin hasi aurretik, 18:30ean, **San Andres Bertso Paper lehiaketaren sariak** banatuko dira. 16 urtetik gorakoen mailan **Jesus Mari Gisasola “Trunboi”** izan da aurtengo San Andres Bertso Paper lehiaketako irabazlea. Donostian bizi den eibartarrak 300 euro eta txapela jasoko ditu. Bigarren saria Oretetako Iñigo Legorburuk eskuratu du, eta 250 euroko saria eta plaka emango dizkio ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Gazteen mailari dagokionez, **Eneko Osorok** jantziko du txapela eta bigarren saria, berriz, Peru Alberdik eraman-gu du etxera.

Bertso jaialdiaren **ordu berean, 19:00etan**, gitarrarekin eskuan ikusiko dugu Maddalen Arzallus bertsolaria Arkaitz Allur trikitilariarekin **dantzaldi-erromeria kosmiko** eskaintzeko Torbio Etxebarria kalean (euria eginez gero, Untzagako karpan). Lotuan, soltean, kontradantzan edota jauzi eginez dantzan ondo pasatzeko ikuskizuna prestatu du bikoteak Patxi Monteroren gidaritzapean.

2.000 euroko Gabonetako OTARRA

Gaur eta bihar kalean erosteko aukera
Gaur (19:00-21:00) Bihar (13:00-14:00)

SALMENTA LEKUAK:
 El Corte Ingles, ...eta kitto!, Isasi okindegia, Mujika eta Otegui harategiak, Echetto eta Arriola prentsa, Maria Ospitxal (Calbeton), Bolintxo, AEK eta Udal Euskaltegia, Izadi loradenda, Lamia ileapaindegia eta Kultu



Musikaren lekukoa hartuz **Eibarko hiru musika-taldek** jardungo dute **21:00etatik aurrera** karpan. **Kvalvika, Garrapata eta Cobrak** elektronika, punk eta rockaren eremuetara eramango gaituzte, herrian dagoen sormenaren erakusle. David Karbaren proiektua da Kvalvika eta urtarrilean kaleratu zuen bere lehen EP-a. Lehengoaz gain, 'I'm your social network. I'm your talent show' bigarren lana aurkeztuko du Untzagan Andoni ACE gitarra-jolearekin batera. Garrapata, berriz, 2004an sortutako punk taldea da, eta euren sortutako eta Eskorbuto, R.I.P., Cicatriz eta beste hainbat talderen abestiak eskainiko dituzte karpan. Cobrak, bestetik, hamar urteko ibilbidea dauka rockaren munduan eta eszenatoki handienetan ibili da azken

Garrapatak, Cobra eta Kvalvika taldeekin batera, kontzertua eskainiko dute gaur 21:00etan



aldian. Talde eibartarrak kritika bikainak jasotzen dituzte eta hemengo jaialdietan eskainitako kontzertuetan, musika eta zinea uztartuz eskaintzen duen primerako proposamenaren erakusle.

Egun batzuetako atsedendia ostean, **hilaren 29an, San Andres bezperan, DJ Xaiborrek dantzaldia** eskainiko du Untzagan **18:30etik 21:00etara**, herriko gazteak zein helduak dantzan jartzeko asmoarekin.


Salmenta postu gehiago aurten

San Andres bezperako gaua berezia (eta luzea) izaten da askorentzat, koadrilan afaltzeko bildu eta ondo pasatzeko aukera paregabea, baina San Andres Egunak goizean goizetik eskainiko du egitarau zabala. **Euskal Herri osotik etorritako ekoizleek 78 postu jarriko dituzte**, iaz baino lau gehiago, Untzagan eta Txaltxa Zelaian XXXIX. **San Andres**

Nekazal Azoka osatzeko. Abereen erakusketa, berriz, Toribio Etxebarria kalean ipiniko dute.

Eguerdian aizkolarien txapelketa egingo da Toribio Etxebarrian. Ernesto Ezpeleta 'Bihurri', Alex Txikon eta konpainia bikotea arituko dira lehian. Helduen kasuan hiru bikotek hartuko dute parte; gazteak, berriz, bi bikote izango dira. Aizkolarien ordu berean **German Meababasterretxea eta Jose Luis Gorrotxategi bertsolariek, eta Jainaga eta Narbaiza trikitilariak** emanaldia eskainiko dute Untzagan. **Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako trikitilariak**, bestalde, kalejira egingo dute herrian zehar eta, musikarekin jarraituz, **12:30ean Plaza Dantzara** erromeria egingo da Untzagan Kezka dantza taldearen eskutik, Jainaga eta Narbaizarekin.

13:00etan San Andres Azoka, Pintxo Txapelketa eta Kartel lehiaketako sariak banatuko dira azokari amaiera emateko,



Jaixak Herrixak Herrixandakok hainbat ekitaldi antolatatu ditu, eurretako asko Gaztetxean.



Baimendutako
harategia
Euskal Okela
Carnicería
autorizada

Bidebarrieta 20
Tlfno: **943 20 16 69**

 facebook.com/oberenaharategia



ZURICH
Lejardi S.L. Aseguru Agentzia
Tel. 943 20 11 49 / Plaza Barria, 8 / Eibar

baina ziur jai-giroak bizirik jarraitzen duela San Andres Egunean.

Gaztetxean ere Sanandresak

Jaixak Herrixak Herrixandakok ere Sanandresak modurik onenean ospatzeko egitaraua antolatu du. San Andres bezperan zentratu ditu ekintzak kolektibo honek, gauari etekin handiena ateratzeko. Gaztetxean egingo dira ekintzak, baina bertan bilduko direnak batzeko elektrotzarangarekin kalejira hasiko da 19:00etan Untzagatik. Jai-giroan murgildu ostean afaria egingo da



Jaiak ospatzeko ez dago baserritar jantzi eta dantzan hastea bezalakorik, umetatik hasita.

21:00etan eta, ondoren, bingoa. Bingo bezperia izango da, tribial antzekoa, eta herriko eragileen inguruan egingo diren galderak erantzun beharko dituzte parte-hartzaileek. 'Bingo' oihukatu eta gero, 23:00etan, erromeria egongo da 'Parrapas' taldearen eskutik eta musikak gaua girotzen jarraituko du horren ostean. 'Parrapas' taldekoek '...eta kitto!' aldizkariaren 1.033 zenbakian egindako elkarrizketan (14. orrian) aipatu zizuten moduan, jairik jai ibiltzeko sortu dute taldea. Bada, badago herriko jaietan ibiltzea baino gauza hoberik?

Bezero Guztiendako San Andres ZORiontsuak!

**bokatak
 kazuelitak
 tapak
 pintxoak**

...

Ondo pasa Sanandresak!

URKIZU, 11

Bocadillos **BAR MAIXA** Casuelitas

MAIXA

F. Calbeton, 8 943 53 85 80

Pintxoak / Kazuelitak / Ogitartekoak / Razioak / Venezuelako platerak

Das de Mayo

T. Etxebarria, 19
 943 47 87 17

ZATOK GURE ADMINISTRAZIO BERRIA EZAGUTZERA

JATORDUAK astelehenetik ostiralera, 18 eurotan

Bestelako **MENUAK** aste osoan, 35 eta 50 eurotan

Betiko **KARTA**rekin jarraitzen dugu, parrillan egindako arrain freskoenak eta okel apartekoekin

chalo ha

T. 943 20 11 26 - Isasi, 7



Kaleetan Kantuz abesbatza

Helburuak eta eskaintako zerbitzuak

Esperientzia Eskolaren hirugarren promozioaren "proiektu sozialaren" emaitza bezala sortu zen Kaleetan Kantuz, eta Ikasten Elkartearen parte izatera pasatu zen. Taldearen helburua Eibarko taberna eta kaleetan kantuan egiteko zegoen ohitura berreskuratzea da. Lehendabiziko irteera 2007ko abenduan egin zuten, gabonetako kantuz osatutako erreperorioarekin. Gaur egun 50 emakume eta 16 gizon daude taldean, gehienak jubilatutak. Jarduera zabalik dago eta doakoa da. Erreperorioaren erdia euskaraz eta beste erdia erdaraz abesten dute. Azken bi urteetan euskal dantzak ere egiten dituzte. Abesbatzaren zuzendari lanetan Conchi Gurruchagak dihardu, eta dantza zuzendaria Elisa Lopez da.

Ekintza nagusiak

Lehen eginkizuna taldeko kideak animatzea eta ondo pasatzea da, "kideentzako terapia bat da". Horretaz gain, Eibarko eta kanpoko ekitaldi askotan parte hartzen dute. Udalarekin eta Jubilatutako Etxekin kolaboratzen dute. Hilean behin irteera programatu bat daukate eta auzo desberdinetatik hasita egiten dute. Beste herri batzuetako abesbatzekin batera ere ibiltzen dira (Aretxabaleta, Otxandio, Elgeta, Zeanuri...). Arrasatera Opera ikuskizunak ikustera joaten dira, eta urtero atzerrira irteera bat antolatzen dute. Irteera hauek bakoitzak bere poltsikotik ordaintzen ditu.

entseguak: San Andres elizan,
ostegunetan, 19:30ean

harremanetarako: Aurora Larreategi
620 55 89 76
auroralarreategui@hotmail.com
www.ikasten.info

webgunea:



Gaur egun 50 emakume eta 16 gizon daude Kaleetan Kantuz-en. Astero entsaiatzen dute San Andres elizan.

"As Burgas" Galiziako Etxea

Helburuak eta eskaintako zerbitzuak

1984an sortu zen "As Burgas" Galiziako Etxea Eibarren, eta, harrezkero, eibartar guztioi Galiziako kultura eta gastronomia ezagutzera emateko jardun dute lanean elkarteko bazkideei esker, alde batetik tabernaren zerbitzuaren bidez, eta, bestetik, egiten dituzten kultur ekintzen bitartez. Kultura, gastronomia eta folklorea ekartzeaz gain, euren helburu nagusia Galiziako kulturaren eta euskal kulturaren arteko lotura indartzea da, hamarkada askotako lotura eustea, eta datozen belaunaldiari kultura eta tradizioa erakustea, esate baterako talde folklorikoaren bidez eta umeentzako antolatzen diren kultur ekintzen bidez.

Ekintza nagusiak

Galiziako Etxearen jarduera nagusiak kultur mailakoak dira. Urtero 'Dia das letras galegas', 'magosto' (gaztainerre), enpanada lehiaketa, umeendako mozerro edo marrazki lehiaketa, tute eta mus txapelketak eta horrelako hainbat topaketa desberdin antolatzen dituzte. Azken finean, Galiziako zati txiki bat ekarri nahi dute Euskadira.

helbidea: Urkizu, 11 - behea
telefonoa: 943 20 67 37
e-maila: casaasburgas@outlook.com



Galiziako kultura eta ohiturak gure artera ekartzeko ahalegin handia egin dute 'As Burgas'ekoek azken hamarkadetan.

Gazteak ondo baino hobeto moldatu ziren bakailaoa prestatzen

Eibarko Bakillauaren Kofradixiak antolatutako XIV. Eskolarteko Bakailao Txapelketak neska-mutil mordoak elkartu zituen domeka goizean Untzagan. Herriko ikastetxeetako ikasleek osatutako 32 bikotek hartu zuten parte udaletxeko arkupeetan jokatu zen lehiaketan eta sukaldari gazteek goizaren zati bat su artean eman zuten, bakailaoa pil-pilera prestatzen. Lehiaketarako izena eman zutenen artean aurretik horrelako "salsatan" ibilitakoak gutxi ziren. Gehientzat bakailaoa prestatzen zuten lehen aldia zen, baina horrek ez zien galazazi oso itxura oneko kazolak prestatu eta aurkeztea. Etxetik ekarritako errezeptak, Youtuben ikusitako bideoak, Kofra-



Mogel Isasiko ikastetxeetakoak nagusitu ziren domekako gazteen arteko lehiaketan.
Maialen Belaustegi

dixako kideek emandako azalpenak eta sukaldatzen zuten bitartean jasotzen joan ziren azken orduko aholkuak... seguruenik horiek guztiek izango zuten eraginik azken emaitzan eta epaimahaikideek ez zuten lan erraza izan irabazleak aukeratzeko ordua ailegatu zitzaizenean. Hala ere, agindutako moduan maila bakoitzean bat aukeratu zuten saria jasotzeko: 12-14 urte bitartekoen mailan saria Ibai Lorenzo eta Aner Berjerandik eraman zuten eta 14-16 urte bitartekoen mailakoa, berriz, Lucia Arrillaga eta Leire Molinak jaso zuten. Horrez gain, saritutako ikastetxea Mogel-Isasi izan zen eta, betiko moduan, parte hartu zuten guztiei domina bana eman zieten, merezi zuten eta!



info@gerritek.net
www.gerritek.net

SOLUZIO INFORMATIKOAK

Marka guztietako zerbitzu teknikoa eta salmenta

Neurrira egindako software-aren garapena

Gerritek
INFORMATIKA

Txaltxa-Zelai, 4-6 Tel: 943-033892

Okindegia Gozotegia **OGI BERRI**
TEL. 943 53 05 26
#DEFIENDIENL EIBAR
OGI BERRI
F. CALBETÓN, 23
Enkarguak etxera eramaten ditugu



Ogietan aukera zabala Ogi beroa
Tartak Pastelak Sanblasak
Bonboiak Arrautzak Esnea
Enpanadak Pizzak Edariak
Kafea Prentsa Aldizkariak
Egunero: 07.00-21.00 Jaiegunetan: 07.00-20.00
Hemen, kalitatea



JOSEBA BARRUTIA "ARNO": Su Ta Gar taldearen kontzertua Coliseoan (2017-V-5).



Etxeak zure esku

Inmobiliarien gehigarria

Eibarren gaur egun daukagun etxebizitzaren eskaintza oso zabala da. Bigarren eskuko etxebizitza zein berria nahi izanez gero, herrian ditugun inbiliarrietara jotzea besterik ez daukagu. Horietan diharduten profesionalak behar dugun informazio guztia emango digute:

etxebizitzaren kokapena, orientazioa, metro karratuak, ezaugarriak, zein egoeratan dagoen, prezioa...

Eskuartean daukazun gehigarri hau lagungarri izango zaizuela uste dugu. Eta informazio gehiago nahi izanez gero, konpromisorik gabe joan zaitezke sektore honetako adituengana: zeuen premiei erantzuteko prest egongo dira.




www.aukera-inmobiliaria.com
943 12 13 95 Bidebarrieta 29




BOE Egazelai. Eibar Ref. 1170 eta 1173

Babes ofizialeko etxebizitzak. 2 logela
127.000 €-tik. Denak garaje eta trastelekuarekin. Terrazadun azken etxebizitza.




Ubitxa. Eibar Ref. 1212

Berriztua. 2 logela. Altzariekin.
Irogailua 0 kotara.
147.200 €




Julian Etxeberria. Eibar Ref. 1180

4 logela eta 2 komun. Oso handia,
120 m². Irogailua 0 kotara.
270.000 €




Arane. Eibar Ref. 1107

Egoera ezin hobea. Altzariekin.
2006koa. 3 logela eta 2 komun.
2 garaje aukeran. 298.000 €



Urki. Eibar Ref. 1184

Gutziz berriztua. 2 logela.
Trastelekua.
115.000 €



Urkizuko dorreak. Eibar

Ref. 1207, 1192, 1182, 1148 eta 1071
2 eta 3 logelako etxebizitzak.
Kalefakzioa eta irogailua. 160.000 €-tik.



Zezen Bide Galdetu
75 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Dena kanpora begira. Igogailua. Konpontzeko.



Julian Etxebarria Galdetu
100 m². Konpontzeko. Igogailua eta kalefakzioa.



Errebal Galdetu
125 m². 4 logela, egongela-jangela, sukalde-jangela, 2 komun. Igogailua, trasteroa eta kalefakzioa.



Bidebarrieta Galdetu
Apartamentua. Logela bat, egongela-sukaldea eta komuna. Ezinhoea.




T. Etxebarria Galdetu
5 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta komuna. Igogailuarekin.



Santainies 90.000 €
3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Pisu baxua. Kalefakzioa.



Barakaldo 120.000 €
2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Konpontzeko. Kanpora begira. Igogailuarekin.




Arrate-bide 100.000 €
2 logela, egongela-sukaldea, komuna eta despentsa. Egoera onean.



Barakaldo 150.000 €
2 logela, egongela, sukaldea, bainu-gela eta komuna. Igogailua eta kalefakzioa. Egoera onean.




J.A. Mogel 90.000 €
3 logela, sukalde-egongela, komuna. Igogailua eta kalefakzioa. Konpontzeko. Trasteroarekin.



Deba-Anguleru Galdetu
3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Kalefakzioa eta igogailua. Guztiz berritua.



San Juan 130.000 €
2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Terraza eta igogailua.




Barrena 180.000 €
98 m². 3 logela eta 2 komun. Erdi-berritua. Igogailua eta kalefakzioa.



Gisastu Bide 162.000 €
2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Egoera onean. Trasteroarekin.



Urtzaile (Jata) 230.000 €
Duplexa. 2 logela. 2 komun, egongela eta sukaldea. Erdi-berria. 2 garajerekin.




Iifar-kale 110.000 €
2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Konpontzeko. Igogailua.



Bustinduitarren Galdetu
2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Ezinhoea. Trasteroarekin.

**GARAJEAK,
LOKAL
KOMERTZIAL
eta
INDUSTRIALAK**
Salmentan eta alokairuan.



T. Etxebarria Galdetu
2 logela, komuna, sukalde-egongela. Berritua. Igogailua eta kalefakzioa.



Toribio Etxebarria, 1
943 20 03 58
fincas@euki.com
www.euki.com

- Gestio inmobiliarioa:** alokairuak, erosketak, salmentak, tasazioak, kontratuak...
- Galdetu zure etxebizitzaren Finantziatorako Bidea:** mailegu hipotekarioak, pertsonalak...
- Informazio Pertsonalizatua**



Amaña 109.000 €
 3 logela, egongela, sukaldea balkoiarekin eta komuna. Ganbarearekin. Bista ederrak.



Arragueta 118.000 €
 Etxebizitza handia. Igogailua kaleraino. Erdi-berritua.



Bidebarrieta 175.000 €
 Igogailuarekin. 3 logela.



Isasi Galdetu
 Obra erdi-berria. 2 logela, 2 bainugela, garaje itxia aukeran.



Isasi Galdetu
 Dena kanpora begira. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Igogailua kaleraino




Ifarkale 155.000 €
 Pisu altua. Guztiz berritua. Igogailuarekin.



San Juan Galdetu
 Pisu altua. 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea.



Egiguretarren Galdetu
 Atiko zoragarria. Terrazekin. 2 logela.



Iburgain 132.000 €
 Pisu altua, konpontzeko. Igogailuarekin.



Urkizu 94.000 €tik aurrera
 Igogailua kaleraino.



Untzaga 159.000 €
 Guztiz berritua. 3 logela. Aukera ezinhobea.



San Juan 250.000 €
 Berritua. 4 logela, bainugela eta komuna. Igogailua eta kalefakzioa.



Ipuruako dorreak Galdetu
 Pisu altua. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Garajea aukeran.




Aldatze 127.000 €
 Gazteentzako aproposa. Oso eguzkitsua. Dena kanpora begira.



Wenceslao Orbea 85.000 €tik aurrera
 2 eta 3 logelako etxebizitzak.



Errebal Galdetu
 200 m². Igogailua kaleraino. Terrazarekin. 2 ganbara.



T. Etxebarria Galdetu
 Etxebizitza handia. Konpontzeko. Igogailuarekin.



Legarre 137.000 €
 Gazteentzako aproposa. Eguzkitsua eta bista ederrekin.



Arratebide 15.000 €
 Garaje-plaza. 2 sarrera (San Andes pasealekua eta Arratebide).



Bidebarrieta Galdetu
 Atikoa. 3 logela. Berritua.



Carmen Galdetu
 Atiko zoragarria. Terrazekin.



Jardineteta 107.000 €
 Gazteentzako aproposa. Bizitzera sartzeko. Argitsua.



T. Etxebarria 180.000 €
 Igogailua kaleraino. 80m². Bizitzera sartzeko.



Txaltxa Zelai Galdetu
 2 logela. egongela, sukaldea eta komuna. Garajea aukeran.



Urkizuko dorreak 200.000 €tik aurrera
 2 eta 3 logelako etxebizitzak.



Etxeak
zure esku

Inmobiliarien gehigarria

dp donpiso
FIDATU ZAITEZ PROFESIONALETAZ BAKARRIK

Isasi, 16
EIBAR

M. Valdespina, 12
ERMUA

Zure etxea saltzeko
modurik azkar, errez
eta eraginkorra

donpiso@donpiseibar.com
www.donpiso.com 943 82 05 10 618 769 839

Arragueta, 2 bis B-behea
943 20 08 60

agencia
inmobiliaria

Juaristi
A.P.I.: Rosa Juaristi

- salerosketak
- errentamenduak
- balioztatzeak

rosa@inmobiliariajuaristi.com
www.inmobiliariajuaristi.com

HIGIEZINAK
ARREGI
INMOBILIARIA

Errebal, 20

Tel./Faxa. 943 203 333 Mobila. 656 766 344
www.inmoarregi.com

IbaiOndo
inmobiliaria

Bidebarrieta, 24 behea
Tel. 943 201213
www.inmoibaiondo.com
ibaiondo@inmoibaiondo.com

EIT (Eraikinen Ikuskapen Teknikoa)

Eusko Jaurlaritzaren 3/2015 Legearen arabera, 50 urte baino gehiago dituzten etxebizitza eraikinek inspezio tekniko pasatu beharko dute.

Eraikin horien jabeek 2018ko ekainaren 27rako aurkeztu beharko dute inspezio teknikoaren txostena. Arkitekto edo aparejadore tekniko batek egin beharko du azterketa, eta etxejabe bakoitzak izango du aukeratzeko aukera.

Goi mailako teknikari batek egindako txostena eta irizpena da, eraikina ikuskatu ondorengoa. Horren bidez, eraikinen kontserbazio egoera azaltzen da, egoera onean mantentzeko segurtasun, osasungarritasun eta apaingarritasun publikoaren aldetik. Uneoro ertsiko zaie bizigarritasunerako eta erabilgarritasunerako beharrezko baldintzei. Horrez gain, eraikinaren ingurutzailerari eta instalazioei buruzko datuak biltzen dira, eraikinaren eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko, eta irisgarritasun unibertsaleko baldintza orokorren ebaluazioa eta desgaitasunen bat duten pertsonak eraikinera iristeko eta hura erabiltzeko orduan diskriminaziorik ez egoteko baldintza orokorren ebaluazioa, indarrean dagoen araudiari jarraituz; horretaz gainera, eta baldintza horiek direla eta, eraikinean zentzuzko egokitzapenik egin ahal den edo ezin den adieraziko da.

Bakoitzaren etxearen informazio gehiago nahi duenak, Eusko Jaurlaritzak gaiari buruz duen **www.euskoregite.com** web orrialdean egin dezake kontsulta. EIT txostenak hamar urtetako balioa du.




ARBELOA
INMOBILIARIA

688 72 41 22
info@inmoarbeloa.com

San Frantzisko 34,
Elgoibar

www.inmoarbeloa.com




Jardineta
105.000€, 75m²
2 logela, balkoia, egongela, sarrera, komuna eta sukaldea despentsarekin. 5.pisua igogailuarekin.



R.Galdós
240.000€, 90m²
Eguzkitsua eta bista zabalak. 3 logela, sukaldea, balkoia, egongela, 2 komun eta ganbara. 3.solairua igogailuarekin. Kalefakzioa.



San Miguel Auzoa
278.000€, 150m²+11Ha
3 logela, egongela, 2 komun, garbiketa gela eta sukaldea. 3 solairutan ganbara barne. Inguru paregabea.



Elgoibar
120.000€, 215m²
4 logelatako etxebizitza +garaje+ganbara+txokoa. Duplexa egiteko aukera. Txabola+lursaia (610m²) aukeran 60.000 €.

Altuna txapelkunak Astelenan jokatu du San Andres egunean

Kaiolaren barruko txapelkun berria asteburu honetan hasiko den binakako txapelketa nagusiko bigarren jardunaldiko lehen partiduan izango da. Datorren asteko egunean, San Andres egunean, Astelenan jokatu duen jaialdiko partidu nagusian, atzeko koadroetan Martija lagun duela, Aspe enpresa bereko aurkariak izango ditu: Elezkanok eta Rezusta bergararrak osatutako bikotea. Altunak eta Martijak txapelketako bikote gazteena osatzen dute, 21 eta 20 urterekin. Binakako txapelketa horretako hirugarren jardunaldiak ere



Katedrala bisitatuko du, abenduaren 10ean, egun horretan Aspe eta Asegarceko bikoteen arteko neurketarekin: Eibarko enpresako Irribarria eta Merino II.a Victorrek eta Albusuk osatutakoa gaingiditzen ahaleginduko dira.



Untzagan izan beharrean, aurten T. Etxebarrian jardungo dute.

XV. San Andres Aizkolarien Txapelketa jokatu da 30ean

San Andres eguneko aizkolarien arteko lehiak hirugarren bosturtekoa biziko du datorren asteko egun eguerdian. 12:00etan hasiko den jaialdian zortzi aizkolarik jardungo dute beharrean txapelen bila. Antolatzaileek diotenez, "bi lehia izango dira: bi bikote gazteen artekoa eta beste bi bikote helduen artekoa. Egin beharreko lana ere zortzina kortekoa izango da, berdina lau bikoteentzat. Gazteek iaz seinako korteari egin zioten aurre, eta aurten beste urrats bat egitea eskatuko diegu".

Erakusketa batek baino ahalegin handiagoa eskatzen duen horrelako lehiak jendearen interesa piztuko du. Horretarako toki aproposa ere izango dute lekuko: Toribio Etxebarria kalean izango dira aipatutako norgehiagokak, Klub Deportiboaren parean. Aurreko urteetan Policlinica Gipuzkoaren babesa jaso duen txapelketan aurten Alkideba izango du laguntzaile nagusi. "Eta Dioni Kortina erregaitza izango da norgehiagokaren nondik-norakoak azalduko dizkigun esataria".

Emaitza bikainak lortu zituzten Eibar FTko lehen ordezkariak

11 partidutan bakarrik sei gol sartuta aurkeztu zen Mendilibarren taldea Betisen aurrean Ipuruan, baina jokalariek neurketa dotorea eskaini zieten zaletuei eta 5-0 irabazi zuten andaluziarren aurrean. Xuban Peñak zuzentzen duen nesken taldeak, bestalde, bide ezin zuzenagoa dihardu egiten 2. Mailan eta, Pauldarrak taldeari 1-4 irabazita, Logroño harrapatu dute lidergoan.

Hurrengo neurketei begira, 1. Mailako Eibarrek Mendizorrotzan jokatu du bihar eguerdian. Alaves atzetik dute eta, aurkari zuzena denez, ondo egongo litzateke puntuak urratzea Gasteizen. Premier Bidaiak-ek bi autobus beteta zituen martitzenerako, Ego-gainetik 10:30ean irtengo dutenak: bat partiduen amaieran bueltatuko da, bestea 19:30ean. Emakumezkoen taldeak Athletic B hirugarren sailkatua hartuko du Unben: partidu handia, beraz.



abenduak 3
emon eskua euskeriari

MUGIKA

Urkizu, 18
943120194

HARATEGIA

ONDO PASA Sanandresak!!!

ESPEZIALITATEAK: Odolkiak / Plater prestatuak



Eibar Eskubaloiak talde guztiak aurkeztuko ditu gaur arratsaldean

Guztira 300 bat jokalaria biltzen dituen Eibar eskubaloia klubak maila guztiatako taldeen aurkezpena egingo du gaur arratsaldean, 18:00etatik aurrera, Ipuruia kiroldegian. 22 talde osatu dituzte denboraldi honetarako, "mutilenak zein neskenak ia berdinduta, erdi eta erdi gutxi gorabehera" Gaizka Bilbao klubeko presidentek dioenez. Berak gidatzen duen zuzendaritza taldeak maiatzaren 31n hartu zuen aurrekoaren lekukoa eta ahalegin berezia dihardu egiten kluba herrira gerturatzeko: "Gure aurrekoek oso kudeaketa ona egin zuten eta kluba saneatuta dago. Eta guk prozesu berri bati ekin diogu, jendearenganako gertutasuna bilatze horretan". Bide horretatik, zortzi lagunek osatutako zuzendaritzak irailean jokalariai eta haien gurasoak bildu zituen jardunaldia antolatu zuten Arraten, "200 lagun ingururekin, horrek lan asko eskatu bazigun ere", dio Bilbaok. Babesle berrien bila ere jardun dute eta baita "hamar bat lortu. Eurei ere eskerrak eman nahi dizkiegu eta, horretarako, beste eki-

taldi bat egingo dugu domeka eguerdian Untzagan".

Bazkide kanpaina urtarrilean

Aurrekoarekin lotuta, Eibar Eskubaloiak bazkide kanpaina abiatzeko asmoa du urtarrilean. Kirola praktikatzeko irtenbide paregabea eskaintzen die klubak gure herriko gazteei, "alebinetatik hasi eta senior mailarainoko taldeekin". Eskubaloia Eskolan 5. mailakoekin hasita dihardute lanean eta 3. eta 4. mailako neska-mutilak ere ez dituzte ahaztuta, "baina eurekin jarduteko toki fisikorik gabe gaude, beste kirol batzuetakoekin erabiltzen dituztelako instalazioak". Pertsonak hezitzea dute lehen helburutzat Eibar Eskubaloian, "emaitzei baino, kirola praktikatzeari eta balore batzuk helarazteari ematen diegulako lehentasuna".

Senior mailako taldeei dagokienez hainbat arazorekin ibili dira azken aldian, iaz hainbat jokalarik laga zutelako eta aurten

Irailean Arraten egin zuten jardunaldiko irudia.



min hartuta ere askotxo izan dituztelako. 1. Maila Nazionalean jokatzeko duen Somos Eibarrek, esaterako, ligako lehen hiru partiduak irabazi ondoren, lesioak direla eta jarraian galdu dituzte beste batzuk azken jardunaldian Maristas El Pilar-ekin izandako berdinketarako. Partidu horretan, esaterako, itzuli zen taldera eskubaloia lagata zuen Igor Moyua atezaina, bere sasoiaren arraterekin eta Eibar Eskubaloia- ren lehen urteetan aritutakoak. Euskal Ligagan jokatzeko duen nesken Avia Eibar Eskubaloiak, bestalde, denboraldi hasierako porrotak ahazten doa eta azken jardunaldietako partiduak irabazi egin ditu.

Pachamama bidea kateatuz, Patxi Usobiagak beste urrats bat egin du bere eskalada ibilbidean

Hilaren 10ean Olianen (Lleida) kateatutako 9a+b graduko Pachamama bidearekin, eibartarra lehen euskal eskalatzaila da horrelako zailtasun maila lortzen. Badira urte batzuk Usobiagak kirol eskaladaren lehen le-

rrua 9a+ batekin laga behar izan zuela, baina bide horretara berriro itzulita aurten martxoan bertan zailtasun bereko Papitxulo bidea lortu zuen. Eta orain beste koska bat gainditzea erdietsi du. Lorpene borrokaren emaitza izan da eibartarrentzat, bide hori lehen aldiz orain dela zortzi urte probatu zuelako; hain zuzen ere, nazioarteko lehietan lehen lerroan zegoenean. Orduko hartan oin batentzako heldulekua puskatu, erori eta sorbalda dislokatu zitzaion. Horretaz gain, osatzen ari zela auto istripua izan zuen eta esan zioten muturreko zailtasunean ezingo zela berriro ibili. 2009an gertatutakoak "atsedenaldi luzea" hartzera behartu du Usobiaga, baina hor dugu berriro bueltan, berak dioen moduan "inoiz baino sasoikoago". Papitxulo martxoan eskuratu eta udaberrian Pachamamarekin berreskuratutako istorio pertsonalak inoiz bizi izan duen "egoera bereziena bizitzera" eraman du Eibarko eskalatzaila.



Arteaga, Jorge, Agirre eta Rojo Tolosan aurreko domekan.

Kalamuak Jiu Jitsuko beste hiru gerriko beltz berri ditu

Aurreko domekan Tolosako Usabal kiroldegian jokatutako Jiu Jitsu gerriko beltza lortzeko azterketetan, Arrate Jorge, Ane Rojo eta Jon Arteaga modalitate horretako 1. Dan gerriko beltzaren jabe egin ziren. Kalamuako Manu Agirre, berriz, azterketako epaimahaikide izan zen. Asteburu honetan, bestalde, Defentsa Pertsonalerako gerriko beltza eskuratzeko azterketak egingo dira Legazpian, Kalamuako lau ordezkariaren parte-hartzearekin: Ane Rojo eta Jon Arteaga hor izango dira berriro, eta eurekin Javier Asorrei eta Joseba Garcia de Eulate, Manu Agirre epaimahaikidearekin.

Bolunburu Oroigarriaren 68. edizioa jokatu da abenduaren 3an

Domeka horretako 10:30etik aurrera bederatzik kros lasterketa hartuko ditu Arrateko Olabe zelaia, Gipuzkoako Txapelketaren Kopa barruan jokatu den Bolunbururen 68. edizioan. Aurreko urteotako zirkuitoari eta programazio berari eutsiko diete Eibarko Klub Deportiboko atletismo batzordeko antolatzaileek. 10:30ean 20 urtetik azpiko neskek eta 16 urtetik azpiko mutilek eta masterrek 3.800 metroko distantzia osatuko dute. 10:55ean emakumezkoen txanda izango da (16 eta 18 urtetik azpikoak eta masterrak), 2.800 metro egiteko. 11:15ean, senior mailako eta 23 urtetik azpikoak emakumezkoekin batera, 18 eta 20 urtetik azpiko mutilek hartuko dute parte 5.100 metro betetzeko. Eta 11:40ean senior mailako eta 23 urtetik azpikoak gizonezkoen lasterketa jokatu da 8.500 metroko distantzian.

Bost proba horien ondoren gaztetxoeren ordua helduko da: 12:20ean infantil mailako neskek 1.600 metro egingo di-



tuzte, 12:35ean maila bereko mutilek 2.400 osatuko dituzte, 12:50ean neska alebinak abiatuko dira 1.200ekoa egiteko, eta 13:05ean maila bereko mutilek 1.600ekoari ekingo diote. Atletismo goizarekin amaitzeko, 13:20an 2006an eta

2007an jaiotako neska-mutulen ordua izango da: benjamin maila horretako parte-hartzaile guztiak Eibarkoak izango dira.

Julen Teran nagusi Irungo proban

Aurreko asteburuan Irunen jokatu zen Bolunbururen aurretik Gipuzkoako Kopari hasiera ematen dion lehenengo krosa. Bi proba horietako eta ondoren jokatu diren Oiangu, Elgoibarko Mugerza eta Lasarteko puntuazioekin erabakiko da Koparen azken sailkapena. Irungoan honako postuak lortu zituen Klub Deportiboko ordezkariak: maila absolutuan, Aitziber Urkiola (4.), Txomin Osoro (30.) eta Roberto Gartzia (39.); 20 urte azpitik, Julen Teranek irabazitako proban, Markel Gutierrez (14.), Pablo Valle (15.) eta Mireia Arietaleanizbeazkoa (8.); 16 urtetik azpikoetan, Jone Acuña (7.) eta Maddi Tejada (15.). Aurrekoekin batera, infantil mailako sei atletek hartu zuten parte eta alebin mailako beste bostek.



Aurreko zapatuan, eguraldi bikaina lagun zutela, eta paisaie ikusgarriez inguratuta, osatu zuten Bizkaiko Biraren 13. etapa irteeran bildutako 48 mendizaleek. Klub Deportiboko mendi batzordeak antolatzen duen Birari beste bost etapa gertzen zaizkio, 2018an egitekoak. Balmasedatik Gordexolaraino egindako ibilbidean Espaldaseca gaina pasa zuten.

Emakumezkoen euskal selekzioak bihar jokatu du Ipuruan

Txekiar Errepublika izango dute aurkari bihar arratsaldeko 17:00etatik aurrera Euskal Selektioaren kamisetarekin zelairatuko diren jokalariek. Iñigo Juaristi hautatzaileak Athletic-eko 11 jokalarideitu ditu, Realeko sei eta Bartzelonako bakarra. Sarrerak 5 eurotan daude salgai eta partidu egunean txarteldegia 15:00etan zabalduko dute Ipuruan. Motorrak berotzeko, bestalde, Euskal Selektioaren inguruko mahai-ingurua egingo dute gaur Armeria Eskolan; hor izango da Iribar atezain handia. Bihar Fan Zonea inauguratuko da 11:00etan Untzagan, hainbat jolasekin, eguerdian jokalariaik aurkeztuko dira, 16:00etan kalejira egingo da Ipuruaraino eta, partiduaren ondoren,



19:00etan Nerea Rodriguez DJ-aren emanaldia izango da, 20:00etan Genero Indarkeriaren Eguna gogoratzeko ekitaldia egingo dute eta, eguna biribiltzeko, Disko Festa izango da.



ARRATE SARASUA MEABEBASTERRETXEAREN

2. urteurrena (2015-XI-30)

*“Azaroko gau hotz batean gure aldetik joan zinen.
Etxekoan oroimenean goxo eta epel beti zango zara”*

MAITE ZAITUGU

GURASO ETA ANAI-ARREBAK



Kulturen arteko fusioa mahaiaren inguruan

Mugak eta Gipuzkoako SOS Arrazakeriaren eskutik urtero antolatzen den Bizilagunak ekimenaren harira, beste herri batzuetan bezala Eibarren ere hainbat bazkari egin ziren, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik.

Hemen jaiotakoak eta atzeritik gurera etorritakoak mahai baten bueltan elkartzea bilatzen duen egitasmoarekin kultura ezberdinen arteko elkar ezagutza sustatu nahi dute ekimenaren arduradunek. Iazko esperientziak izandako harrera onarekin animatuta, aurten ere asmo horrekin antolatu ditu bazkariak ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Ongietorri Berbetan programaren ardua duen Miren Baranguanek azaldutakoaren arabera, "oraingoan Eibar ko 40 bat lagunek hartu dute parte bazkarietan, lau talde osatuta. Jatorriz Eibarkoak direnekin batera, Senegal, Ginea eta Marokotik etorritakoak elkartu ziren domekan, elkarrekin bazkaltzeko. Iazko partaideekin alderatuz gero, baten batek errepikatu du, baina orohar jende berria animatu da parte hartzera eta beste hainbat, berriz, data dela eta parte hartzerik ez dutelako izan penarekin geratu dira".

Familia osaketari begira denetariako taldeak osatu direla



Antolatzen ziren lau bazkarietako partaideak bazkaltzera joateko irrikitan, Untzagako harmailetan.

adierazi digute, "beharbada iaz baino jende gazteagoak eman du izena. Harreman berriak garatzeko interesa bada-goela ikusi dugu".

Izena emandako guztiak pozarren daude esperientziarekin eta, kasuren batean, gainera, trukaketa kulturala eta fusioa musikaren bitartez egin zutela esan digute: "Hainbatek jatekoa erdibana prestatu zuten, hemengo eta kanpoko jakiekin menua osatuta. Denek esan dute oso gustora daudela, esperientzia aberasgarria egin zaiela eta errepikatzeko prest daudela. Herrian horrelako aukera eskaintzeagatik esker ona azaldu dute denek".



Han eta hemengo janariaz gozatzen.



Elkar ezagutzen eta momentu paregabeak konpartitzen.



Ume eta helduek primeran pasatu zuten etxeko giro goxoan.

Lagun arteko giroan ederto ibili ziren.



Bezero Guztiendako San Andres ZORiontsuak!

SLOW



Ego Gain, 10 943 25 41 33

GURE LEKU

Isasi, 3 EIBAR ☎ 943 20 71 89

CHO

EZDOK ROCK

HEMENGO ETA HANGO GARAGARDO ARTISAUAK.
MUSIKA ETA GIRO JATORRA



Toribito Elzebarria 18, Eibar

XOK

Onda pasan!



POZKARI J. Etxeberria, 11
943478690 / 632695273

hirurok

TABERNA
– Ogitartekoak
– Plater konbinatuak

Errekatxu, 1
Tel. 943 56 72 06

TXOKO

Giro alai Sanandresetan!

**UNTZAGA PLAZA, 10
20600 EIBAR**

Beleko



Bista Eder 2

Akara



Untzaga Plaza, Eibar
943 043 782



AIDE JAUREGI (ardoetan aditua)

– *Ardo apardunak ekarriko dituzue Eibarrera abenduaren 12an. Zer eskainiko duzue?*

Munduko leku desberdinetako ardo apardunen dastaketa izango da. Penedeseko cava bat, Champagne bat, Alsaziako beste apardun edo espumoso bat, Australiako beste bat eta Italiako Prosecco. Munduan zehar bidaituko dugu. Ez gara gehiegi murgilduko gauza teknikoetan. Gai asko aipatuko ditugu, besteak beste, klimaren eragina ardoaren nolakotasunean, jendeak nola lan egiten duen... Daskateta hauetan oso elkarrizketa interesanteak sortzen dira (cava xanpaina da? Espumoso hau cava da?...). Azkenean jendeak kontzeptuak nahastu egiten ditu, eta hauek argitzen saiatuko gara. Apardun desberdinak daude, mundu guztian egiten dira eta probatzea da kontua.

– *Nongoak dira apardun onenak?*

“Ardo apardunak hotzegi zerbitzatzen dira”

Ardo apardun edo espumosoak ospakizun berezietan ezinbestekoak direlako ezagutzen ditugu gehienbat. Dena dela, bestelako bazkari eta afarietan gero eta pisu handiagoa hartu dute. Apardun zuriak, gorriak, beltzak, Champagne, Cava, Prosecco... denak dira bikainak, baina ez bakarrik. Abenduaren 12an munduko ardo apardun desberdinen dastaketa eskainiko du ...eta kitto!-ko bulegoetan, 19:00etan, Izkiriota Ardoaren Mundua-ko Aide Jauregik.

Leku guztietan apardun onak egiten dira. Egia da historikoki batzuk ospea lortu dutela eta hori zerbaitengatik izango dela: Frantziako xanpainak prestigio handia dauka, luxuarekin lotutako zerbait da, eta cava onak ere badude. Aukeraketa egiterakoan, momentu horretan behar duzuna kontuan hartuta, kalitatea eta prezioa balantza baten jartzen jakin behar da. Hego Afrikako apardunak, esate baterako, oso interesgarriak dira, onak eta ekonomikoagoak, baina aurkitzeko zailak. Exotikoak dira eta jendearen gustua asetzen dute.

– *Eta gure inguruan badago ekoizpenik?*

Errioxan cava egiten duten bodegak badaude; azkenean cavak ez dauka zonifikazioarekin zerikusirik eta leku guztietan egiten dira: Extremaduran, Valentzian... Txakolinan barruan ere apardun dexente egiten dira, gero eta upategi gehiagok egiten dute eta, diru-

dienez, mahats mota hau ondo dihoa apardunak egiteko.

– *Nolako bereiztasunak dituzte ardo apardunek?*

Ardo hauek, aparra eta burbuilak edukitzean, freskotasuna ematen diote ardoari. Ardo zuri bat freskoa da, baina burbuilak badiu freskoagoa izango da. Konpentsazio bat egon behar du garratzasuna, burbuila eta guztiaren artean. Zerbitzeko tenperatura ere oso inportantea da. Normalean, nire ustez, hotzegi zerbitzatzen dira eta hau akatsa da. Jendeak uste du ia izoztuta edan behar direla, eta ez da horrela, 6 edo 8 gradutan edatea gomendatzen dut.

Bestalde, burbuiladuna hobekien definitzen duena bersatilitatea da, somelier batzuentzat oso komodoa da burbuiladunekin lan egitea, zaila da ardo mota onekin txarto doan jaki bat bilatzea.

Santa Zezilia ospatzeko kalejirak egin dituzte musikariek

Musikarien babeslearen eguna ospatzeko emanaldi bereziak eskaini dituzte herriko talde ezberdinek. Urteroko martxan, hartzarekin beldurtu barik aurreko zapatu gauerdian Untzagatik abiatu ziren Eibarko Cielito Musika Bandako musikariak Santa Zeziliaren omenezko “serenatan” eta domekan, berriz, kontzertua eman zuten Coliseo antzokian, Isabel Laspiur pianojoleak lagunduta. Juan Bautista Gisasola Musika Eskolakoak, bestalde,



Silbia Hernandez



Maialen Belaustegi

eguztenean, Santa Zezilia egunean egin zuten kalejira, arratsaldean. Iluntzean, berriz, Usartza Txistulari Taldekoak ibili ziren kale-rik kale. Horrez gain, txistulariek domekarako kontzertua antolatu dute, udaletxeko arkupeetan, 12:30ean. Elena Perezek zuzenduko ditu eta Marisol Arrillagak soinuarekin lagunduko die, honako egitarauari jarraitzeko: “Adiskide lasaia” (sonatetxo, J. I. Ansorena), “Bertsolariak” (Enrike Aranburu), “Los hermanos Anaia” (Sabin Bikandi), “Amaiur” (J. Iruretagoiena), “Bolero ta Polka” (doinu herrikoia), “Enma” (polka, J. I. Ansorenaren moldaketa), “Fanbaltz” (Iñaki Kareaga) eta “Auspo jotzailearen ametsa-Gurea-Goiburu” (Pepe Andoain).



Gitarra emanaldia eskainiko du gaur Andrea Gonzalezek

Andrea Gonzalezek gaur laugarrenez jardungo du Eibarren emanaldia eskaintzen, Coliseo antzokian 20:30ean hasiko den gitarra kontzertuan. Ordubete inguruko saiorako estilo ezberdinak aukeratu ditu: Manuel de Fallaren doinuak, Joaquin Clerch konpositorearenak, Antonio Manjon musikagilearen "Aire Vasco" kantaren aurkezpena eta beste hainbat interpretatzeaz gain, Naxos nazioarteko konpainiarekin grabatu berri duen bere lehen diskoko pieza batzuk ere joko ditu. Sarrerak 8 euro balio du (6 euro Coliseoaren Lagunak txartelarekin).



Italia eta Suitzako txotxongiloak ekarriko dizkigu Titirijaik

Azaroko azken astean Tolosan Titirijai Nazioarteko Jaialdia egingo dela aprobetxatuta, urteroko moduan Eibarren ere txotxongiloekin gozatzeko aukera izango dugu. Bihar arratsaldeko 17:00etan "Euriaren gizona" eskainiko du Italiatik datorren Michelle Cafaggik Coliseoan. Ia ordubeteko iraupena izango duen ikuskizunean ez da barbarik egiten eta lana 3 urtetik aurrerako umeentzat zein familientzat egokia da: "Ikuskizun komiko eta magikoa, bidaia miresgarria eta bisuala, gauza txikien magia, urez eta xaboi ez betirik". Sarrerak 5 euro balio du. Eta martitzenean, berriz, Suitzako Guignol Arrouettesek "Nire etxe ostean" izenburuko lana aurkeztuko du, 15:00etan Hezkuntza Esparruko aretoan, bereziki ikasleentzat pentsatuta programatu duten saioan.

Euskaraz azpigitulaturako filma

Filmazpit egitasmoaren barruan, astelehenean: "Fenix 11-23" (Zuz: Joel Joan, Sergi Lara) euskaraz azpigitulaturako filma ikusteko aukera izango da Portalean (jatorrizko hizkuntzak gaztelera eta katalana dira). Pelikulan parte hartzen duten aktoreak Nil Cardoner, Rosa Gamiz, Alex Casanovas, Lluís Villanueva, Roberto Alamo eta Ana Wagener dira. Emanaldi bi eskainiko dituzte, lehena 10:00etan eta bigarrena 18:00etan.



Santa Barbara eguna Museoan

Armagintzaren Museoak abenduaren 3an, Santa Barbara armaginen zaindariaren egunaren bezperan ate irekien eguna izango du, nahi duten guztiek museoa doan bisitatu dezaten. Horrez gain, biltegira bisita gidatu bereziak ere eskainiko dituzte (10:00, 11:00 eta 12:00etan), horiek ere doan. Izena emateko 943 708446 telefonora deitu edo museoa@eibar.eus helbidera idatzi daiteke.

Pagatxaren bideo-foruma

Pagatxak antolatuta, astelehen arratsaldean, 18:30etik 20:00etara "Emakumeen Istoriak" zikloaren barruan saioa egingo da Portalean (ikastaro gelan). Leticia Martinez-Alcocerrek gidatuta, Emilia Pardo Bazan idazle eta feministaren figura aztertuko dute. Sarrera libre izango da.



M^a CARMEN MAGUREGI ZABALA 2. URTEURRENA (2015-XII-1)

*"ZURE irribarre eta samurtasuna
betirako izango dira GURE ARTEAN"*



Exfibar XLVIII. Seilu erakusketa hartuko du Portaleak domekatik aurrera

Domekan zabalduko dute Exfibar XLVIII. Seilu erakusketa Portalean. Urtero Arrate Filatelia Elkarteak antolatzen duten erakusketa, oraingoan, aurten 50 urte bete dituen Eibarko Armaginen Elkarteari eskaini nahi izan diote eta, besteak beste, Isidro Rejok diseinatutako seilua eta zigilu-markatzekoa atera dituzte. Zigilu-marka ipini nahi duenak domekan izango du aukera, 11:00etatik 14:00etara. Erakusketan parte hartuko dutenen artean A Coruña, Basauri, Bilbo, Barakaldo, Donostia, Plasencia eta Irungo bildumagileak daude. Eurekin batera eibartar biren bildumak ikusteko aukera izango da: Luis M^a Dominguezek Eibarko postaren historiari eskainitakoa erakutsiko du eta Luis M^a Aristegik, berriz,



txirrindularitzari buruzkoa. Abenduaren 3ra arte egongo da zabalik erakusketa, ordutegi berezian: astelehenetik barixakura, 18:00etatik 20:00etara eta zapatu eta domeketan, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara (azaroaren 30ean itxita egongo da).



Sendabelarrei buruzko tailerrerako izen-ematea zabalik dago

Datorren astelehen eta martitzenean Mentxu Amunategi bermeotarrak sendabelarrei buruzko tailerra eskainiko du ...eta kitto! Euskara Elkartearen lokaletan, 19:00etan. Izena emateko telefonoz deitu (943200918) edo emaila idatzi (elkartea@etakitto.eus) daiteke. Tailerrak 6 euro balio du eta izena ematen duenari saio bietara joateko konpromisoa eskatzen zaio. Gure inguruan hazten diren lore eta landareen ezaugarriak ikasteaz gain, ikasitakoa praktikan jaritzeko aukera izango dute parte-hartzaileek.

Ipuin Kontalaria

Maite Franko-k aurkezten du
Bizarrurdinak

Azaroak 25, larunbata arratsaldeko 6etan Sarrera dohanik

+3 urte

Juan San Martin Liburutegian



Genero bortizkeriaren kontrako ipuinak liburutegian

Maite Frankok genero bortizkeriaren kontrako ipuinak kontatuko ditu bihar arratsaldeko 18:00etan umeen liburutegian, Zapatuko Ipuina egitasmoaren barruan eskainiko duen "Bizarrurdinak" izenburuko saioan: "Ipuinak jakinduriaz betetako zakak dira. Bizar Urdin horren adibide argia da, izan ere aspal-diko ipuin honek urtetan azaldu die neskatoei genero bortizkeria zertan datzan". Istorio honi esker ikasi ohi dute ongi maite dituztenak eta gaizki maite dituztenak bereizten, erasoaldi batetik nola ihes egin eta baita sufritutakoarengatik nolabaiteko saria ere jaso dezaketela. Sarrera doan izango da.

Sosolan baserri mundua bertatik bertara ezagutzen

Aurreko zapatuan, Berbetan eta Ongi Etorri programetako hainbat kide eta familia Sosola baserria bisitatzeko egon ziren. Goizean goiz autobus txikia hartu eta Sosolara abiatu zen hogei lagun. Han zeuden zain Enrike, Aizpea eta Manex semea. Baserriaren inguruko historia entzun eta ingurua bisitatu ondoren, bi taldetan banatuta ogia eta gazta nola egiten duten erakutsi zieten. Eta ez hori bakarrik! egindakoa probatzeko aukera ere izan zuten: gazta, ogi desberdinak, sagar-zukua, sagardoa, galletak... Jende askok eman duenez izena, datorren abenduaren 2an, bigarren irteera bat egingo dute, oraingoan ere ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik.



Garbiketak a domicilio

ESKAITZA 644 726 377 Garbiketa produktu profesionalak barne

- Zure etxea (110 m²raino) goitik behera 225€ %35eko deskontuarekin 150€
- 4 ordurako garbiketa-BONOA zure etxe/lokalean, plantxa eta sukaldatze aukera 72€ %30eko deskontuarekin 55€

ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelarrera,
gaztelerratik euskarara,
eta ingelesetik euskarara.

ZERBITZUA

elkartea@etakitto.eus

Bezero Guztiendako San Andres Zoriontsuak!



**BUENOS
AIRES**

Toribio
Etxebarria, 8



Ego gain, z/g

943 20 67 53



**Ondo pasa
San Andres
jaietan!!!**

*eta ondo baino
kobeto gurekin
Untzaga, San*



Bista Eder, 11

Gosariak
Eguneko menua
Pintxo bereziak
Entsaladak
Razioak
Hanburesak...

943 47 77 79



ETXEZ-ETXEKO ZERBITZU BERRIA

FOXTER-ek bere gastronomia
bikaina etxera eramaten dizu,
igande-ostegun bitartean,
20:00etatik 22:30era.

Animatu zaitez eta deitu!!!

razioak • sandwichak •
hanburesak • bokatak • mexikarrak

Plaza Barria, 6. Tel. 943 121 255



birjiñape, 1 behea
tel. 943 20 71 00

SOKOA



Toribio Etxebarria, 18 - 1.

**CASINO
ARTISTA
EIBARRES**

**Enkarguak
hartzten
dira**

Telefona: 943 20 71 90



Ospatu gurekin!!



Errebal, 24

943 70 13 23





Emon Eskua Euskeriari



12:00etan abiatuko dira auzoetatik Untzagaruntz kalejiran herritarrek. Argazkian, azken Tantaneko irudia.

Bazkarirako txartelak non?

- Ogi-Berri (Amaña)
- Amesti (Amaña)
- Ceba (Urki)
- Ipurua (Ipurua)
- Albert (Txaltxa Zelai)
- Ez Dok (T. Etxebarria)
- Buenos Aires (T. Etxebarria)
- Manuel (Urkizu)
- ...eta kitto! (Urkizu)

Jubilatu,
langabetu
eta umeei

7 €

Gainontzekoak

10 €



Iaz lorak egin ziren bezala, aurten hainbat horma-irudi egingo ditugu "Emon eskua euskeriari" lelopean.

Euskararen Eguna abenduaren 3an

Egitarau berezia prestatu du Eibarko Euskalgintzak abenduaren 3a biziki ospatzeko. Eibarko kaleak kantuz beteko dira, auzo bakoitzetik Untzagaraino joango den jendearengandik hasita. **Kantu-liburuak banatuko dira 10 abesti errazekin**, eta musikarien laguntza ere izango da. Bestalde, Untzagan bi mahai egongo dira horma-irudia osatzeko eta, ilara errespetatuz, denok izango dugu aukera eskua euskeriari emateko... Bizimiñak prestatuko du herri-bazkariko paella eta, ondoren, aukera izango da berriro kantu-liburua hartu eta erromerian giro paregabea gozatzeko. Eibar KE-k ere bat egin du egunarekin eta, markagailuan goiburua azaltzeaz gain, jokalariai euskeraren eguneko pankartarekin irteango dira zelaira. Esataria ere dena euskeraz egiteko konpromisoa hartu du.



Nekazaritza eta abeltzaintza azoka ELGOIBARREN

Bihar hil amaierako nekazaritza eta abeltzaintza azoka egingo da Elgoibarren, 09:00etatik 14:00etara, Kalebarren plazan. Baserriko produktuen salmentarekin batera, 11:00etatik aurrera, Gizarteratzeko ikasleak taldeak pintxoak salduko ditu. Horrez gain, 12:00etan kale kantarien emanaldia hasiko da eta 12:00etatik 14:00etara bitartean talo tailerra egingo dute, haur eta gazteentzat. Ganadu erakusketa, bestalde, eguerditik arratsaldera izango da, Aita Agirre plazan.



Haurrentzako antzerkia ERMUAN

Ermuko Udalak antolatuta, bihar 17:00etan haurrentzako antzerkia eskainiko dute Ermua antzokian. Glu Glu Produktzioak taldearen eskutik "Marikixkur eta hiruhartzak" lana taularatuko dute Ugaitz Alegria, Itxaso Quintana eta Ylenia Baglietto eibartarrak. Sarrerak 4 euro balio du.



Ezoziko Ama abesbatzaren emanaldia SORALUZEN

Bihar iluntzean, 20:00etan Ezoziko Ama abesbatzak kontzertua eskainiko du Soraluzen, Herri Antzokian. 1992an Soraluzen sortutako taldeak hainbat kantu eskainiko ditu biharko saioan.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- Eusebio Otxandiano Alberdi. 95 urte. 2017-XI-14.
- Perpetua De Diego Vaquerizo. 92 urte. 2017-XI-19.
- Jose Vicente Iturriza Elorza. 86 urte. 2017-XI-19.
- Maria Cabo Romero. 68 urte. 2017-XI-20.
- Candido Zubiaurre Kortaberria. 76 urte. 2017-XI-20.
- Andres Perez de Arce. 90 urte. 2017-XI-20.
- Juana Arzallus Sologaitoa. 93 urte. 2017-XI-20.
- Marian Abascal Ruiz. 60 urte. 2017-XI-21.
- Manuel Dorrio Gallego. 82 urte. 2017-XI-21.
- Petra Aramendi Albizu. 97 urte. 2017-XI-22.
- Tomasita Hernandez Gonzalez. 75 urte. 2017-XI-22.

jaiotakoak

- Iren Etxeberria Ispizua. 2017-XI-12.
- Beñat Valenciaga Vallecillo. 2017-XI-14.
- Yassira El Boussaidi. 2017-XI-20.

farmaziak

- Barixakua 24
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Zapatua 25
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Domeka 26
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Astelehena 27
EGUNEZ Mendiñueta (Urkizu, 6)
- Martitzena 28
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Eguaztena 29
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Eguena 30
EGUNEZ Mendiola (S. Agustin, 3)
- Barixakua 1
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Zapatua 2
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Domeka 3
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Astelehena 4
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)

GAUEZ BETI - 2017 AN-
 Mendiola (S. Agustin, 3)

SUDOKUA

AURREKOAREN
 EMAITZA

9	8	5	7	6	3	1	4	2
6	2	4	9	1	5	3	8	7
3	1	7	4	2	8	9	5	6
8	6	2	3	5	1	4	7	9
4	5	9	8	7	6	2	3	1
7	3	1	2	9	4	5	6	8
2	4	3	6	8	9	7	1	5
1	9	8	5	4	7	6	2	3
5	7	6	1	3	2	8	9	4

4				1		2		
		2		7			9	6
	1		5					
1		7						
3			7		2			1
						5		8
				6			1	
9	3			5		2		
	6		2					3

telefono

jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekua.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

Barixakua 24

SENTSIBILIZAZIO-KANPAINA

16:30/19:00. "Konprometititu gaitzen Eibarrekin".

17:30/18:15. Birziklatzeari buruzko tailerra, haurrentzat. Untzagan (harmailetan).

BERTSO-JAIALDIA

18:30. San Andresekoa. Bertsolariak: Andoni Egaña, Alaia Martin, Miren Amuriza eta Sustrai Colina. Gai-jartzailea: Jon Mikel Mujika. Antolatzailea: ...eta kitto! Euskara Elkarte. Portalean.

DANTZALDI-ERROMERIA

19:00. "Plazara dantzara". Toribio Etxebarria kalean.

9. URTEURRENA

19:00. Guridi tabernarena. Pintxoak eta musikarekin.

KONTZERTUA

20:30. Andrea González Caballero. 8 euro (6 euro, Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

KONTZERTUA

21:00. Cobra, Kvalvika eta Garrapata. Untzagan.

Zapatua 25

1972-AN JAIOTAKOAK

12:00. Lepokoen banaketa eta argazkia, Untzagan.

12:30. Piskolabisa, Peña Txinberan.

13:30. Txikiteoa, musikarekin lagunduta.

15:00. Bazkaria, Ipur sagardotegian.

18:30. Dantzaldia eta tragoak, Ez Dok tabernan.

20:30. Amaiera.

XV. TXISTORRAREN EGUNA

12:15. Ekitaldiaren hasiera eta txotxa. Elgoibarko Dultzaineroakekin. Txistorra eta edari salmentaren hasiera.

15:00. Atsedena.

18:30. Txistorra eta edari salmentaren hasiera.

21:30. Zozketaren hasiera. Untzagako karpan.

BAKAILAO TXAPELKETA

13:00. XXV. "San Andres Saria" txapelketarako bakailaoa banatzea. Untzagan.

TXOTXONGILOAK

17:00. "El hombre de la lluvia", Michelle Cafaggi (Italia). 5 euro. Nazioarteko txotxongilo jaialdia. Coliseoan.

UMEENDAKO ZINEA

17:30. "Gru 3, mi villano favorito", doan. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

ZAPATUKO IPUINA

17:00. "Bizarurdinak", Maite Frankoren eskutik. Umeen liburutegian.

INDARKERIA MATXISTEN KONTRA

18:00. "Volar" (Zuz: Bertha Gaztelumendi) dokumentala eta solasaldia. Portalean.

20:00. Indarkeria Matxisten Kontrako elkarretaratzea. Untzagan.

Domeka 26

BAKILLAUAREN KOFRADIXIA

10:30. Kofradixaren XXIV. Kapitulu. Kanpotik etorritako kofradeekin hamarretakoa. Ipur sagardotegian.

11:30. Kalejira, Usartza txistulari taldeak lagunduta, Portaleraino. Batzar Nagusia eta ohorezko kofrade berriak izendatzea. Goruntz abesbatzarekin. Bazkaria, Ipur sagardotegian.

BAKAILAO TXAPELKETA

11:30. XXV. "San Andres saria". Untzagan.

INAUGURAZIOA

12:00. Exfibar 2017 erakusketa eta sari-banaketa. Zigilu-marka ipintzeko ordutegia: 11:00etatik 14:00etara. Portaleko erakusketa aretoan.

KONTZERTUA

12:30. Usartza txistulari taldea. Untzagan.

KONTZERTUA

13:30/14:00. Eibar Eskubaloia taldearen aurkezpena, talde eta sponsor guztiekin. Untzagan.

Astelehena 27

FILMAZPIT

10:00 eta 18:00. "Fenix 11-23" (Zuz: Joel Joan, Sergi Lara) euskaraz azpiztitulaturako filmaren emanaldia. Portalean.

BIDEO-FORUMA

18:30. Emakumeen istorioak: Emilia Pardo Bazan. Portalean (ikastaro-gelan).

IKASTAROA

19:00. Sendabelarrei buruzko tailerra, Mentxu Amunategiren eskutik. ...eta kitto!n.

Martitzena 28

TXOTXONGILOAK

15:00. "Detras de mi casa suiza", Guignol Arrouettes (Suitza) taldearen eskutik. Nazioarteko txotxongilo jaialdia. Hezkuntza Esparruan.

IKASTEN

16:00. Punto-tailerra.

17:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

HITZALDI-DASTAKETA

19:00. "Tolosako babarrunak". Arrate Kultur Elkartearen.

IKASTAROA

19:00. Sendabelarrei buruzko tailerra, Mentxu Amunategiren eskutik. ...eta kitto!n.

Eguaztena 29

SANANDRESAK

18:30. DJ Xaibor. Untzagan.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. San Andres elizako lokaletan.

JAIXAK HERRIXAK HERRIXANDAKO

19:00. Eonian elektrotxaranga. Untzagatik abiatuta.

21:00. Herri afaria. Bingoa.

23:00. Erromeria, Parrapas taldearekin. Jarraian musika saioa. Jaixak Herrixak Herrixandakok antolatuta. Gaztetxean.

Eguena 30

SAN ANDRES EGUNA

09:30. XXXIX. San Andres nekazal azokaren epai-mahaiaren lanen hasiera.

Ganadu erakusketa (Juan Gisasola kalean, epaitegiko plazan).

12:00. Bikoteka aizkolarien txapelketa. T. Etxebarrian.

12:00. Jose Luis Gorrotzategi eta German Meabebasterretxea bertsolarien eta Jainaga eta Narbaiza trikitilariak.

Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako trikitilarien kalejira.

12:30. Plazara Dantzara erromeria, Kezka Dantza Taldearen eskutik, Jainaga eta Narbaiza trikitilariekin.

13:00. San Andres azoka, pintxo txapelketa eta kartel lehiaketako sariak banatzeko ekitaldia.

ARGAZKI RALLIA

Goizez hasita. San Andres III. Argazki Rallia, Arrate Kultur Elkartearen eskutik.

IKER ETA AMAIAREKIN

12:00. Amaia Agirregabiria eta Iker Rokandioaren egoerari buruzko informazio-mahaia eta sinadura bilketa. Elkartasuna adierazteko argazkia ateratzeko txokoa. Untzagan.

Zapatua 2

BELDUR BARIK TOPAKETA

16:30. Ongi etorri. Untzagan.

16:50. Portaleraino joango dira, trikitilariak lagunduta.

17:00/19:00. Ikastaroak. Portalean.

19:00. Portaletik Untzagara, trikitilariak lagunduta.

19:10. Luntxa. Untzagan.

19:30. Kalejira.

20:00/21:45. Sariak banatzeko ekitaldia, Beatriz Egizabal eta Ane Labakaren eskutik. Coliseoan.
21:45. Bueltarako autobusak.

Domeka 3

EUSKARAREN EGUNA

12:30. Horma-irudia.

14:30. Herri-bazkaria.

16:00. Erromeria, Parrapas taldearekin. Karpan.

Erakusketak

Azaroaren 26tik abenduaren 3ra:

– EXFIBAR 2017 XLVIII. SEILU ERAKUSKETA. (Portalea)

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, ENEKO, txapeldun, bixar 10 urte beteko dozuz-eta! Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, Izaroren partez!



Zorionak, INTZA, atzo 11 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, AMAMA BENITA! Martitzenian 101 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez!!



Zorionak, NORA, gaur 6 urte egitten dozuz-eta. Aittitta, amama eta famelixakuen partez.



Zorionak, IZAR, astelehenian 8 urte beteko dozuz-eta! Laztan haundi bat zure famelixaren partez!

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)
25ean: 22:30
26an: 20:00
27an: 20:30

"Feliz día de tu muerte"

Zuzendaria: Christopher Landon

(2 ARETOAN)
25ean: 19,45, 22:30
26an: 20:00
27an: 20:30

"La higuera de los bastardos"

Zuzendaria: Ana Murugarren

(ANTZOKIAN)
25ean: 17:00, 19,45, 22:30
26an: 17:00(1 aretoan), 20:00
27an: 20:30

"Asesinato en el Orient..."

Zuzendaria: Kenneth Branagh

(ANTZOKIAN)
25ean: 17:00(2 aretoan)
26an: 17:00

"Deep"

Zuzendaria: Julio Soto



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

- Pisua alokairuan hartu nahi dut Eibarren. Tel. 632-411069.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 3 logelakoa. Tel. 632-426847.
- Nire zortzi urteko umeak eta nik pisua behar dugu alokairuan Eibarren. Tel. 603-783176.

2. Motorra

2.1. Salgai

- Trailerra salgai, lanarekin. Tel. 686-466966.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Garajea salgai Bitor Sarasketa kalean. Tel. 615-761830.

3.2. Errentan

- Garajea alokagai Asua-Errekan. Tel. 616-959625.
- 35 m²ko bulegoa alokagai. 250 eurotan, gastuak aparte (argia, ura, wifi). Ikus-etera etortzeko aukera: Ubitxa, 16-18. Tel. 943-014296.
- Garaje itxia alokagai Asua Errekan. Bi solairukoa, bat biltegirako. Tel. 618-272914.
- Lokala alokagai, barrarekin, 18 urtetik gorakoentzat. Tel. 600-890245.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako, sukalde-lanak eta plantxan egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 661-188580.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-001083.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordutegi zabala. Tel. 602-805869.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 609-312279.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-902417.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-953013.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 657-831093.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 617-350350.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-201603.
- Emakume euskalduna eskaintzen da goizez etxeko lanak egiteko. Tel. 617-935160.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 631-907532.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko. Tel. 632-042847.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 602-064084.

- Mutila eskaintzen da eraikuntzan lan egiteko, dendetako banatzaile moduan etb. Tel. 688-302653. Manuel.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. Tel. 658-158036.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 632-700803.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. Interna. Tel. 637-387401.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. Interna. Tel. 686-824793.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, kamarera moduan eta garbiketarako egiteko. Tel. 688-627687.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 632-411069.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-247899.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-059098.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-551711.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 667-301325.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-893569.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 662-012834.
- Emakume euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 617-628137.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 635-944376.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 678-185304.
- Gizona eskaintzen da edozein lanetarako: sukaldari-laguntzaile, iturgin, txakurrak pasiatu... Tel. 632-067287.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko 13:30etik 17:30era. Tel. 634-256471.
- Mutila eskaintzen da sukalde-laguntzaile moduan. Esperientziarekin. Tel. 632-305145.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-061103.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 658-273486.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko asteburuetan. Tel. 617-571210.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-436462.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 608-886701.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta titulazioarekin. Orduka eta gauzez. Tel. 650-513412.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 679-910991.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko gauzez. Tel. 657-479770.
- Emakume arduratsua eskaintzen da goizetan umeak zaindu eta eskolara eramateko. Tel. 688-884149.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-043190.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientziarekin. Tel. 680-973549.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko lokal, taberna edo pegoetan. Tel. 632-426847.

4.2. Langile bila

- Kamarera/o behar da Portalea jatetxerako. Esperientziarekin. Tel. 943-206868.
- Kamarera/o behar da Soruluzeko taberna baterako. Tel. 943-750030.
- Neska euskalduna behar da astelehene-tik ostegunera arratsaldean eta ostiraletan goizez. Tel. 653-701630.
- Kamareroa behar da Eibarren. Esperientziarekin barran eta jangelan. Tel. 669-713033. Bidali curriculum: jaciebelm@gmail.com
- Dendariak behar dira janari-denda batean lan egiteko. Jornada erdiz. Bidali curriculum Eibarko 16 postakutxara.
- Eibarko Laukolan SL enpresak proiektuak garatzeko programatzailea behar du. .NET eta .SQL jakitea ezinbestekoa. Bidali curriculum: lkl@laukolan.com
- Estetizista behar da Eibarren. Tel. 657-793584

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaearak

- Neska euskalduna behar da klase partikularrik emateko DBH 1. mailako ikasleari eta Batxilergo 2. mailakoari. Tel. 617-386198.

5.2. Eskaintzak

- Neska euskalduna eskaintzen da LHko edo behar bereziak dituzten umei klase partikularrik emateko. Tel. 699-693821.
- Euskerazko klaseak ematen dituzte: azterketarako prestaketa (EGA, perfilak, ...) eta klase partikularrik. Tel. 620-608065.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Kanape tolesgarria salgai, Sompura markakoa. 0'90x1'90. Berrria. Tel. 688-655758.
- 4 berogailu elektriko salgai (bi 7 elementukoak, bat 13koa eta programagarri eta bestea 4koa). Tel. 626-144098.
- Emeibaby motxila ergonomiko bi salgai. Jaiotzetik 15 kilora arte. Egoera onean. Frogatzeko aukera. Tel. 657-774565. Haizea.
- Binilozko diskoak eta singleak erosten dituzte. Tel. 688-624326.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Ford autoko giltza galdu nuen. Udaltzaingoan laga edo deitu, mesedez. Tel. 631-330218.
- Pailazoan saioetan Unibertsitatean aurkitutakoak: Hitman antzeko kopin bi, tren txikia, txupetea, artilezko buf bi (zuria eta arrosa), fular bi (beltza eta loredua) eta aterkina (karratudun marroia). Jasotzeko: ... eta kitto!

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaearak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eu

AT Gure errepideak mantentzeko baliabide gehiago.

Hemen da, kamioientzat bakarrik sortutako lehenengo peaje sistema adimenduna.

Peaje sistema berriarekin, gipuzkoarrak ez diren kamioilariak ere gure errepideen mantenuan lagunduko dute, modu zuzenean, lehen aldiz. Sistema jasagarri honek, N1eko trafikoa arinduko du. Sistema honek kutsadura akustikoa % 25 murriztuko du, gelditu gabe pasatzeko aukera ere emanez.

bidegi.eus

BIDEGI

Arragueta, 20 - behea
943 530642

FISIOTERAPIA ZENTRUA

Ane Mendia
970 kol. zkoa.

ANIMATU GURE ZERBITZU BERRIAK PROBATZERA: hipopresiboak, k-stretch... Dena pertsonalizatua edo talde txikietan.

ONDO - PASA

SANANDRESETAN!

Esku onetan egotearen ziurtasuna.

20.000tik gora paziente pozik.
Etorri eta egin irribarre berriz ere.



20 urte baino gehiago zurekin.



Profesional talde handi bat zure
irribarre zaintzen.



Zure irribarre onena geure
laborategian diseinatzen dugu.



Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19 - bajo 20600 eibar
www.bistaeder.es